


Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización



Bizkaiko Garraio Partzuergoa

Consortio de Transportes de Bizkaia

2008



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	5
I. ONDORIOAK.....	6
I.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA.....	6
I.2 BILBOKO METROA SOZIJETATE PUBLIKOA, SA	7
I.3 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN FINANTZA-EGOERA KONTSOLIDATUAK.....	9
II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
II.1 INBERTSIO PLANA ETA FINANTZA PLANA ETA EGOERA FINANTZARIOA ..	10
II.2 BILBOKO HIRI TRENBIDEARI (BHT) LOTUTAKO AZPIEGITUREN JABETZA.....	15
II.3 KONTRATAZIOA.....	15
II.4 LANGILEAK	17
II.5 BESTELAKO HUTSAK.....	17
II.6 BILBOKO METROA SOZIJETATE PUBLIKOA, SA	18
III. URTEKO KONTUAK.....	21
III.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA.....	21
III.2 BILBOKO METROA SOZIJETATE PUBLIKOA, SA	24
III.3 FINANTZA EGOERA KONTSOLIDATUAK.....	26
ALEGAZIOAK	27
INTRODUCCIÓN	55
I. CONCLUSIONES	56
I.1 CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA	56
I.2 SOCIEDAD PÚBLICA METRO BILBAO, S.A.....	57
I.3 OPINIÓN SOBRE LOS ESTADOS FINANCIEROS CONSOLIDADOS DEL CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA.....	59
II. CONSIDERACIONES SOBRE SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	60
II.1 PLAN DE INVERSIONES, PLAN FINANCIERO Y SITUACIÓN FINANCIERA....	60
II.2 TITULARIDAD DE LAS INFRAESTRUCTURAS VINCULADAS AL FERROCARRIL METROPOLITANO DE BILBAO (FMB).....	65
II.3 CONTRATACIÓN.....	65

II.4	PERSONAL.....	67
II.5	OTRAS DEFICIENCIAS.....	67
II.6	SOCIEDAD PÚBLICA METRO BILBAO, S.A.....	68
III.	CUENTAS ANUALES.....	71
III.1	CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA	71
III.2	SOCIEDAD PÚBLICA METRO BILBAO, S.A.....	74
III.3	ESTADOS FINANCIEROS CONSOLIDADOS	76
	ANEXOS CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA.....	77
A.1	Naturaleza del Ente fiscalizado y legislación aplicable	77
A.2	Presupuesto y Modificaciones.....	78
A.3	Personal	80
A.4	Compras y Servicios.....	81
A.5	Inversiones Reales e Inmovilizado	83
A.6	Tasas y otros Ingresos.....	84
A.7	Ingresos por Transferencias y Subvenciones Corrientes y de Capital	85
A.8	Créditos de compromiso	85
A.9	Deuda y Gastos Financieros.....	86
A.10	Tesorería e Ingresos Patrimoniales.....	87
A.11	Residuos Pendientes de Cobro.....	87
A.12	Operaciones Extrapresupuestarias.....	88
A.13	Contratación	89
A.14	Sociedad Pública Metro Bilbao, S.A.....	90
	ALEGACIONES	99

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urriaren 4a
Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de 2011



SARRERA

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (aurrerantzean, BGP) 2008ko ekitaldiaren Kontu Orokorrari buruzko txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearen arabera burutu da eta HKEEren Lanerako Planean dago jasoa.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arautegia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak. 2003tik 2008ra bitarteko aldiran Azpiegituretan gauzatutako inbertsioen legezkontasunaren analisia dagozkion ekitaldietako EAEn Administrazio Orokorraren Kontu Orokorraren fiskalizazioan barne hartu da; aldi horretan esleitutako guztizkoaren gainean % 87a aztertu da.
- Kontularitzakoak: BGPren eta Bilboko Metroa Sozietate Publikoa, SAREN (aurrerantzean, BM) 2008ko abenduaren 31ko urteko kontuak eta Kontsolidatutako Finantza Egoerak ezargarriak diren kontularitzako printzipioei jarraiki mamitu diren.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhertasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, BGPren eta BM sozietate publikoaren kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen II. idazpuruan aztertu ditugu.

Berebat, BMren 2008ko urteko kontuen kanpoko auditoria aztertu da.

BGP 44/75 Legearen bidez nortasun juridiko propioa duen toki erakunde modura eratu zen, kontsoztzioan bildutako gainerakoekiko askea.

1993ko otsailaren 18an eskritura publiko bitartez BM sozietatea sortu zen eta jarduera nagusia Bilboko Hiri Trenbidea (BHT) kudeatzea du. Kudeaketa lanak BHT osatzen duten edo hari atxikiak dauden ondasunen administrazioa eta haren bidez garatuko den garraio zerbitzuaren ustiaketa besarkatzen ditu.

BHT eraikitzeke lanetan Euskal Trenbide Sareak ere esku hartu du; ETS 6/2004 Lege bitartez sortua da eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailera atxikia dago; Hiri Trenbidea eraikitzeke alor teknikoaren arduradun da eta proiektuak idatzi edo idazteke agintzeaz gainera, azpiegitura lanen zuzendaritza du egiteke nagusi.



I. ONDORIOAK

I.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

I.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (ikus A.13)

1.- Larrabasterrako geltokia tokiz aldatzeko hornidura kontratua 1.314 mila euroren zenbatekoan esleitu zen; kontratu hori larrialdi prozedura bidez izapidetu da Bilboko metroaren erabiltzaileentzat arrisku handiko iritzi zaiolako; ordea, prozedura horrek lehia urratu du. Izan ere, nahiz egoera larrialdi prozedura baliatzeko behar hainbateko arrazoi izan, izapidetze eta egikaritze epeek erakusten dute premia larriagatik prozedura negoziatua baliatzeko aukera bazegoela, SPKLren 154 e) artikulua agintzen duen moduan.

2.- Bederatzi tren unitate hornitzeko 1 zk.ko kontratu osagarrian, 12.272 mila euroren zenbatekoan esleitutakoan, publikitatea eta lehia urratu dira, zuzenean esleitu baitzaio kontratu nagusiaren hornitzaileari kontratu osagarri bitartez, beharrian teknikoak justifikatu gabe.

Epaitegi honen uster, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2008ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

I.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2008ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten du, ondarearen eta 2008ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



I.2 BILBOKO METROA SOZIETATE PUBLIKOA, SA

I.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (ikus A.14)

1.- Enpresak ez du DOCEn argitaratu egin asmo ziren kontratuen berri emango zuen iragarkia; horrek 48/1998 Legearen 29. artikulua urratzen du, ur, energia, garraio eta telekomunikabide sektoreen kontratazio prozedurak arautzen dituena.

2.- BMk ez ditu kontratatzailearen profilean argitaratu kontratazio prozedurak arautzen dituzten nahitaez bete beharreko jarraibideak eta horrek SPKLren 175. artikulua urratzen du.

3.- Guztira 423 mila euroren zenbatekoan esleitutako 9 tren unitateren elkarlotzeko 9 korridoreren horniketan zuzeneko kontratazioa ez dago justifikatua eta horrek publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu.

4.- Basauri-Etxebarri anezka-autobusen zerbitzua 1.080 mila euroko zenbatekoarekin esleitu zen; esleipenerako baliatu zen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua ez dago justifikatua eta horrek publizitate printzipioa urratzen du eta lehia mugatzen.

5.- Sozietateak zuzenean esleitu zuen Nafarroa kaleko eraikin baten 5. solairuko sute batek eragindako kalteen konponketa, 365 mila eurokoa; ordea, publizitate eta lehia printzipioak beteta esleitu behar zatekeen.

6.- Lan-arriskuen prebentzio gaietan aholkularitza kontratua modu zuzenean esleitu zen 106 mila euroren zenbatekoan; publizitate eta lehia printzipioak betez, baina, prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen.

7.- BMk publizitaterik gabeko prozedura negoziatu modura izapidetu zuen autobusen zerbitzu osagarria, 106 mila eurokoa; publizitate eta lehia printzipioen arabera, ordea, prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen.

8.- Trena-lurra irrati-komunikazioko sare bat hornitu eta instalatzeko kontratua, BMren 1. linea zaintzeko zerbitzua eta Ariz eta Sopelanako tailerren garbiketa kontratua, hurrenez hurren, 150, 3.900 eta 223 mila euroren zenbatekoan esleitu ziren; horietan guztietan mugatu egin da PROTRANSen hautaketa, garraioaren sektorerako hornitzaileak sailkatu eta erregistratzeko sistema dena, ez baitzaie sailkatu guztiei prozedura mugatuan esku hartzeko gonbitea luzatu.



9.- BMk zuzenean esleitu zuen metro zerbitzua goizeko 5etan abiarazteko bideragarritasun txostena, 50 mila euroren zenbatekoan; alabaina, publizitate eta lehia printzipioei jarraiki prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen.

10.- MBk automozio-gasolioaren hornidura 97 mila euroren zenbatekoan esleitu zuen bi eskaintza eskatu ondoren, ordea, prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen publizitate eta lehia printzipioak betez.

11.- BMk zuzenean esleitu zuen jatetxeetako txartelak erosteko zerbitzua, 163 mila euroren zenbatekoan; alabaina, publizitate eta lehia printzipioei jarraiki prozedura ireki bitartez esleitu behar zatekeen.

LANGILERIA

12.- Aztertu ditugun 2008ko langileen 6 kontratazio espedienteetan, BMk berariaz gaitutako enpresa batekin kontratatzen du; honek deialdiari publizitatea eman eta baloraziorik gabeko hautagaien azken zerrenda bat proposatzen du. Gerora, BMk hautaketa bat egingo du hautatuen artean, baina berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak erabili direla erasota utzi gabe.

Epaitegi honen ustetan, Bilboko Metroa, SA Sozietate Publikoak, 1etik 12ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2008ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

I.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- BM sozietateak BHT ustiatzeko jardueraren garapenean bere jabetzakoak ez dituen hainbat ondasun baliatzen ditu, BGParenak edo beste erakunde publiko batzuenak direnak eta sozietateari inongo kosturik eragiten ez diotenak.

Berebat, BMk ez du BHT eraikitzeko finantzaketa kontzeptuan inongo kargurik jaso eta estatutu sozialen arabera, bere konturako behar luke izan.



Egungo datan, ezin zehatz daiteke, kasua balitz, arestian adierazitako kontzeptuengatik sozietateari eragin dakioken kostua zenbatekoa den; ez eta, urteko kontuetan zenbateko eragina izan lezakeen jabetzaren molde juridikoaren gainean azkenean hartzen den erabakiak eta aipatutako ondasunen erabilera eskubideak.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako zalantzak izan dezakeen eragina alde batera, Bilboko Metroa, SA Sozietate Publikoaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2008ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2008ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

I.3 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN FINANTZA EGOERA KONTOLIDATUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Finantza Egoera Kontolidatuek alderdi esanguratsu guztietan 2008ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, ondarearen eta 2008ko abenduaren 31n finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

II. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

II.1 atalean BGPren Inbertsio eta Finantza Planen berri emango dugu.

II.2tik II.6ra bitarteko ataletan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

II.1 INBERTSIO PLANA, FINANTZA PLANA ETA EGOERA FINANTZARIOA

BGP da BHTren egitasmo eta gainegitura eta ekipamendu lanak gauzatzeko arduradun; azpiegitura lanen kontratazioa eta zuzendaritza, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailari dagokio eta guztiak ere, Partzuergoaren aurrekontuaren konturakoak izango dira.

BHT eraikitzekeo lanak 1. lineak abiarazi zituen; lanak 2002ko urtean amaitu ziren eta guztira 626.724 mila euroko kostua izan zuten. Gerora 2. linea eraikitzeari ekin zitzaion, gaur egun abian dagoena.

BGPren Kontseilu Nagusiak ekitaldi amaiera bakoitzean Inbertsio Plana onesten du, inbertsio hauetarako aurreikusitako kostua barne hartzen duena; hona hemen 2007ko eta 2008ko abenduaren 31n jasotako Inbertsio Planak:

INBERTSIO PLANA	Euroak milakotan	
	31.12.2007	31.12.2008
2. LINEA		
I. FASEA San Ignazio-Urbinaga eta Bolueta-Etxebarri	268.514	268.514
II. FASEA Urbinaga-Portugaleta eta Etxebarri-ariz.....	176.997	177.014
III. FASEA Portugaleta-Kabiezes eta Ariz-Basauri	420.851	420.274
2. LINEA GUZTIRA	866.362	865.802
3. LINEA Etxebarri-Alde Zaharra		160.000
JARDUERA BEREZIAK (*)	90.239	111.250
GUZTIRA	1.116.601	977.052

(*) 2005eko urteaz geroztik indarra hartzen ari dira Partzuergoak gauzatu beharreko hainbat inbertsio, 2. Linean jaso ezin daitezkeenak; aldiz, egintza bereziak dira eta aparteko atalean jaso dira, "jarduera bereziak" izenarekin.



2008ko ekitaldi itxieran aurreikusitako kostuaren bariazioa, aurreko ekitaldi itxieran onartu zenarekiko, bi arrazoik eragin dute nagusiki:

- 2007an 3. Linea barne hartzea, 2005eko otsailaren 23an Kontseilu Nagusiak hartutako erabaki baten ondorioz; erabaki horren arabera, behin proiektua onartu eta txostena egin ondoren BHTren Sarea Eraikitzeke Planean eta BGPren Inbertsio Planean barne hartu behar zatekeen Finantza Planean jasotzeko, proiektuaren finantzaketari egokituz. BGPk eraikuntza kostuaren % 75 hartu zuen bere gain eta gainerako % 25a Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak finantzatu zuten.

Gerora, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak BGPren onespenerekin 3. Linearen finantzaketa (Etxebarri-Matiko linea), erdibana euren gain hartzea erabaki zuten; linea hau eraikitzeke ardura Euskal Trenbide Sareak hartuko zuen eta honenbestez, BGPk Inbertsio Planetik azpiegitura hau murriztu zuen.

- Jarduera berezien kapituluak izandako 21.011 mila euroko igoera inbertsio berriek eragindakoa da, hala nola, garraio publikoaren erabiltzaileentzako aparkalekuek eta hainbat elementu zaharkitu izanaren ondorioz sortutakoek.

2008/12/31-N INBERTSIO PLANAREN EXEKUZIOA

Hona hemen 2008ko ekitaldi itxieran 2. Lineako fase ezberdinen egoera esleipen eta exekuzioari dagokionez aurreikusitako zenbatekoarekiko:

	Euroak milakotan				
	Inbertsio Plana	Esleitu	Esleitzeko zain	Gauzatu	Gauzatu gabea
I. FASEA	268.514	268.514	Ez da ezargarria	268.514	Ez da ezargarria
II. FASEA	177.014	176.354	660	176.121	233
III. FASEA.....	420.274	263.724	156.550	142.897	120.827
2. LINEA GUZTIRA	865.802	708.592	157.210	587.532	121.060
Gainegituren laguntza teknikoak, Inbertsio Planean jaso gabeak					
I. FASEA		2.537		2.537	
II. FASEA		3.156		3.156	
III. FASEA.....		2.055		1.566	489
		716.340		594.791	121.549
JARDUERA BEREZIAK	111.250	21.261	89.989	7.052	14.209



2008ko ekitaldi itxieran, I. Fasea amaitua dago jada eta 2002ko apirilaren 13an hasi da martxan. II. Fasea amaitzear dago eta III. Fasea, berriz, egiten ari dira. Fase bakoitzean, aldi berean, makrokontzeptu mailan nagusiki hiru atal bereizten dira: Azpiegitura, Gainegitura eta Material Mugikorra.

Esleitzeko dauden inbertsioen egoera, Inbertsio Planaren arabera, honako hau da:

- II. Fasea:
 - Azpiegitura, 3.022 mila euroren zenbatekoan.
 - Gainegitura, 1.012 mila euroren zenbatekoan.
 - Material mugikorra, 193 mila euroren zenbatekoan.

- III. Fasea
 - Azpiegitura, 98.258 mila euroren zenbatekoan.
 - Gainegitura, 39.841 mila euroren zenbatekoan.
 - Desjabetzeak eta berrezarpenak, 4.035 mila euroren zenbatekoan.

Inbertsio Planak urteko gaurkotze tasa barne hartzen du; horren zenbatekoak 2012. urterako 15.306 mila euro egiten ditu.

- Jarduera bereziak:
 - Maidagan, 20.086 mila euroren zenbatekoan.
 - Urduliz, 22.000 mila euroren zenbatekoan.
 - Barik, 19.646 mila euroren zenbatekoan.
 - Beste batzuk, 21.916 mila euroren zenbatekoan.

Inbertsio Planak urteko gaurkotze tasa barne hartzen du; horren zenbatekoak 2012. urterako 6.707 mila euro egiten ditu.

Gauzatzeko dauden esleitutako inbertsioen egoera honakoa da:

- II. Fasea:
 - Gas-sare, argindar eta telefono lineak berriz jartzea, 233 mila euroren zenbatekoan.

- III. Fasea
 - Azpiegitura, 47.641 mila euroren zenbatekoan.
 - Gainegitura, 16.295 mila euroren zenbatekoan.
 - Material mugikorra, 56.624 mila euroren zenbatekoan.
 - Beste batzuk, 267 mila euroren zenbatekoan.

- Jarduera bereziak:
 - Maidagan, 14.209 mila euroren zenbatekoan.

2027-RA BITARTEKO FINANTZA PLANA

1996ko uztailean, 1986an 1. Linea finantzatzeko izenpetutako akordioari jarraipen emanez, protokolo bat izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta horren indarrez, Santurtzi eta Basauri arteko BHTren 2. Linearen % 50a finantzatzeko konpromisoa hartu zuten.

Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak onartutako Inbertsio Planaren berrazterketa oinarri hartuta, Kontseiluak 2008ko abenduan Finantza plana onartu zuen eta horren arabera, 2027ko urtera arte, 5.759 milioi euroko diru-sarrerak izatea aurreikusi zen; diru-sarrera horiek data horretara arte zenbateko berean gastuak finantzatzeko baliatuko liriteke.

Hona hemen Bizkaiko Garraio Partzuergoaren aurrekontuetan 2008ko abenduaren 31ra arte aitortutako sarreren eta gauzatutako gastuen zenbatekoa, betiere, Finantza Planean jasotako zenbatekoekiko:

	Euroak milioikoetan		
	Finantza Plana	Kontabilizatutako sarrerak	Jaso gabeko sarrerak
DIRU-SARRERAK	2027 arte	2008.12.31	
Eusko Jaurlaritzaren ekarpenak.....	1.305	633	672
BFAren ekarpena.....	1.315	643	672
Zorpetzea.....	1.044	692	352
Creditrans-en salmentak.....	1.979	428	1.551
Bestelako sarrera txikiagoak.....	116	109	7
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	5.759	2.505	3.254



Euroak milioikoetan

INBERTSIOAK ETA GASTUAK	Finantza	Kontabilizatutako	Gauzatu gabeko inbertsioak
	Plana 2027 arte	inbertsioak 2008.12.31	
1. Linearen kostua	614	(*) 614	0
2. Linearen kostua	866	582	284
Jarduera bereziak	111	7	104
Finantza zama	1.725	654	1.071
Creditrans baliogabetzea	1.975	422	1.553
BM, SAREN transferentziak	297	127	170
BGPren ustiaketa gastuak	127	56	71
Bestelako kontu-sail txikiak	44	35	9
INBERTSIOAK ETA GASTUAK GUZTIRA	5.759	2.497	3.262

(*) Kopuru honek ez ditu 1. Linearen ez laguntza teknikoak ez jarduera osagarrien funtsa barne hartzen, 9 eta 4 milioi eurokoak hurrenez hurren; horiek "bestelako kontu-sail txikiak" kontzeptupean daude bilduak.

FINANTZA EGOERA 2008-KO ABENDUAREN 31-N

- BGPk 4.601 mila euroko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina du 2008ko ekitaldi itxieran; ordea, kopuru hori 2008ko ekitaldi itxieran gauzatzeko dauden inbertsioetarako konprometitutako kredituak baino askoz txikiagoa da; hauek 2008ko ekitaldiaren aurrekontuan 50.622 mila euroren zenbatekoa egiten dute (kopuru honetan ez dira konpromiso kredituei dagozkienak jaso). Konpromiso horien finantzaketa etorkizuneko aurrekontuen bidez egin beharko da.
- BGPren zorpetzea 2008ko abenduaren 31n 374.143 mila eurokoa da. BHTren lanak finantzatzeko zorpetzeak sarrera arrunten gainean % 33ko finantza zama egiten du; hala eta guztiz ere, gogoan hartu behar da BGPren xedeak duen izaera berezia eta horren finantzaketa sistema, izan ere, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia baitira zor guztiaren abal-emaile nagusi eta finantza arduradunak.
- BGP bete-betean da kontsartzioan bildutako erakundeen baitako etorkizuneko inbertsioei eta egindako zorrari aurre egiteko.



II.2 BILBOKO HIRI TRENBIDEARI (BHT) LOTUTAKO AZPIEGITUREN JABETZA

HKEEk mamitu dituen BGPri buruzko txostenetan BHTri lotutako ondasunen jabetza juridikoaren auzia mahairatu da. Egoerak legezko arautegi batean du abiaburua (batik bat, sorrera legea eta BGPren Estatutuetan), izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta BGPren arteko jardueren banaketa eta Gobernuak exekutaturako ondasunen harrera arautzen ditu; ordea, araudi honen zehaztasun ezak ibilgetu horren jabetzarekiko ziurgabetasun juridikoa eragin du.

BGP sortzen duen abenduaren 30eko 44/1975 Legeak honako obligazio banaketa hau ezartzen du EAEren Administrazioaren eta BGPren artean:

- Azpiegitura lanen kontratazioa, zuzendaritza eta ikuskaritza ez ezik, beharrezko diren lursailen desjabetzea ere, EAEren Administrazioari dagozkio.
- Bidea, material higikorra, elektrifikazioa, osagarriak eta zerbitzuaren ustiapenerako beharrezko diren gainerako elementuak BGPk ekarri beharko ditu.

Azpiegitura lanei dagokienez, Legeak berak agintzen du obrak gauzatu ahala emango zaizkiola BGPri. BGPren Estatutuen 46. artikulua obrak zein modutara entregatuko diren eta BGPk nola jasoko dituen ezartzen du, behar bezala baimendutako bi erakundeetako funtzionarioek izenpetutako agirien bitartez. Ez dago erasota entrega hori beti azaldutako moduan gauzatu denik, nahiz BGPren eskura jarri izan diren.

Adierazitakoaren indarrez, HKEEk arrazoizko irtenbidetzat eman zuen BGPk ondasunen jabetza hartzea bere ibilgetuan kontabilizatuz. Gaur egun, ibilgetua BGPren balantzean dago erregistratua eta honek urteko amortizazioa egiten du, baina ez dago erasota jabetza eskuz aldatu denik.

Honela, bada, azaldutako egoeraren aurrean, beharrezkoa da BGPk azpiegituren gainean duen eskubidea argitzea eta agiri bidez euskarrিতua uztea.

II.3 KONTRATAZIOA (IKUS A.13)

Kontratazioaren analisiak guztira 9 espedienteren berrikuspena barne hartu du, horietako 2 EAEren Administrazio Orokorra esleitutakoak.

BGPk izapidetutako 7 espedienteetatik bat 2007an esleitu zen eta gainerakoak 2008an. Hona hemen azaleratu zaizkigun gorabeherak:

- Guztira 36.174 mila euroren zenbatekoan esleitutako 4 espedientetan (5, 6, 7 eta 8 zenbakiak) esleipen iragarkia 29 eta 97 egun bitarteko atzeraldiarekin eman da argitara; horrek APKLTBren 93. artikulua urratzen du.



- Guztira 3.175 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean (4 zenbakia), birplanteaketaren egiaztaketa APKLTBren 142. artikulua agintzen duen epearekiko 2 hilabeteko atzerapenez egiten da. Gainera, lanerako programak Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren (KLEO) 144. artikulua urratzen du eta gainera, kontratazio organoak ez du onartu.
- Guztira 1.841 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean (8 zk.ko espediente) zazpi hilabetetan gaintitu da gutun-azalen irekieratik esleipenera bitarteko epea eta horrek APKLTBren 89. artikulua urratzen du. Halaber, ez da justifikatu nola egin den puntuen banaketa, bai prezioari, bai epeari dagokionez; azkenean, eskaintzarik garestiena eta denboran luzeena suertatu baita esleipen hartzaile.
- Guztira 2.257 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean (7 zenbakia) atzerapena gertatu da hornigaia entregatzean. Gainera, kontratuaren finantzaketa ez zaio exekuzio erritmoari egokitzen eta horrek APKLTBren 14.3 artikulua urratzen du.
- Guztira 19.804 mila euroren zenbatekoan esleitutako espediente batean (5 zenbakia) eskaintza balio-neurtzeko kaudimen teknikoari buruzko datuak baliatu dira.

BGPk publizitaterik gabeko bi prozedura negoziatu izapidetu zituen hornitzaile berari data beretan bi enkargu egiteko, 2007ko abenduaren 26an eta 28an, alegia. San Mames geltokiko barneko aretoak garbitzeko bata, eta kanpoaldeko aretoak garbitzeko, bestea. Bien batura, 35 mila eurokoa, kontratazio arautegiari jarraiki batera izapidetu behar zatekeen.

BGPk ondoko zerbitzuen erosketa izapidetu zuen kontratu txikiaren moldeari jarraiki:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
San Mames geltokiko eskailerak eta igogailua.....	30
Karnetak, txartelak eta inprimatzeko zintak jaulkitzeko makinaren alokairua	38
Telefono-arreta, aurretiazko zita zerrenden kudeaketa eta salment. jarraip.	57
Algorta eta Las Arenasko geltokietarako sarbideak berritzeko proiektua.....	24
MEAT* garatzea hardwarean jasotzeko eta aparkaleku funtzioarekin.....	21
Softwarea instalatzea, gaurkotzea eta plataforma berriaren kontrolatzailea.....	31

Ondasun, zerbitzu eta hornigaiak erosteko, horien urteko gastuak, kontzeptu homogeneoen arabera hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gaintitzen baditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirateke, aleko prezioen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.4 LANGILERIA

Langile gastuak aztertu ondoren, honako alderdi hauek bereizi ditugu:

- Aurrekontu-plantillak berariazko osagarriari dagozkion ordainsariak soilik jasotzen ditu; ordea, ordainsari kontzeptu guztiak islatu behar lituzke, EFPLren 21. artikulua agintzen duen moduan.
- Langileen kontratazioari dagokionez, BGPk ez du gauzatutako jardueren euskarri edo ebidentziarik uzten, bitarteko funtzionario bat izendatzeko erabilitako lan-poltsa zuzen kudeatu dela egiaztatzea bideratuko duena.
- 2008ko abenduaren 31n hutsik dago Tarifen Kudeaketa eta Koordinazio Zerbitzuan Erdi Mailako Teknikari plaza; lanpostu hau 2003ko Enplegu Eskaintza Publikoan barne hartua zegoen eta 2004ko azaroaren 16az geroztik behin-behinean bete da, txosten hau idatzi dugun datan deialdirik egin ez dela.

II.5 BESTELAKO HUTSAK

- 2008ko aurrekontuaren likidazioan konpromiso kredituen xehapena ematen denean, “Inbertsio Errealek eragindako gastuak” 6. kapituluak soilik jasotzen da eta ez eragiketa arruntek eragindako gastuei dagozkien konpromiso-kredituak, 2.036 mila eurokoak, ez eta “Kapitalezko transferentziak” 7. kapituluari dagozkion konpromiso kredituak ere, 2.184 mila euro egiten dutenak eta kontabilizatuak daudenak. Konpromiso kredituei dagokienez, likidazioan barne hartzen den informazioan baimendutako eta ekitaldi itxieran konprometitzeko dauden 77 milioi euro daude jasoak. (Ikus A.8).
- BGPk Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoari ordaintzeko hainbat gastu hartu zituen bere gain, BHTren 2. linea eraikitze lanen ondorioz aldatutako elementuen kontzeptuan, Galindoko EDARen inguruko itxituraren zati bat berrezartzearen kostua eta obra-bideetarako ezpondak egokitzearen kostua, guztia 467 mila euroren zenbatekoan; gastu horiek Hirugarrenei egindako Kapitalezko Transferentzia modura kontuetaratzen dira eta ez VI. kapituluko Inbertsioetan obraren kostu handiago modura.

Gauza bera gertatzen da BHTren obrek eragindako zoladura konpontzeko kostuarekin eta zerbitzuen kostuarekin, 423 mila eurokoak, BGPk Portugaleteko Udalarari ordaindu behar dizkionak. Izan ere, kopuru hori Hirugarrenei egindako Kapitalezko Transferentzia modura kontuetaratzen da eta ez VI. kapituluko Inbertsioetan obraren kostu handiago modura.



Berebat, BGPk geroko ekitaldietan Hirugarrenei egindako Kapitalezko Transferentzia modura kontuataratzen ditu 2.184 mila euro, BHTren lanen eraginez bide-zoladura birjartzeko kostu modura.

- BGPk Eusko Jaurlaritzari BHT eraikitzeke lanen exekuzioari dagozkion ordainketak egiteko beharrezko diren funtsak eskualdatzen dizkio. Izan ere, aipatutako lanak gauzatzeko BGPren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaz hitzarmenetan esaten da eskualdatutako funtsek sortzen dituzten interesak BGPren konturakoak izango direla.

BGPk, ordea, ez du bere aldeko interes horien gaineko inongo kontrolik egiten eta eskualdatzen zaion kopurua onartzen du. Garraio Partzuergoak bere aldeko funtsen gaineko jarraipena egin behar luke, jaso behar dituen interesak zenbatekoak diren zehaztu ahal izateko.

- Bestalde, BGPk 11.161 mila euroren kontularitzako idazpena egin du, emaitzetan balore-zorroak izan duen aldaketaren ondorioz jasandako galera islatzeko. Galera hori galera-irabazien kontuan erregistratu da, "Finantza inbertsioetan zuzkiduren bariazioa" eta "Ibilgetutik eratorritako galerak" kontzeptuen bitartez. Gogoan hartuta 2007ko ekitaldian zuzkidura kopuru horrekin hornitu zela eta ekitaldi horretan galera aitortu, ez dagokio 2008an aipatutako idazpena egitea.

II.6 BILBOKO METROA SOZIEKATE PUBLIKOA, SA

Estatutuak eta defizitaren finantzaketa

BGP sortzen duen 44/75 Legeak sozietate anonimo bat sortzea aurreikusten du, kapitala % 100 BGPren jabetzako izango dena eta BHTren zerbitzua emango duena. Bere ardurapeko izango da kudeaketa eta ustiaketari aurre egingo dio; ustiaketa BM sozietatearen estatutuek berariaz garatzen dute.

Honi dagokionez, 44/75 Legeak 4.2 artikuluan aurreikusten du BHT eraikitzeke egin diren kreditu eragiketen amortizazioa ustiaketaren kontura egingo dela. Horixe bera dago jaso BM sozietatearen estatutuetan, ezen 24. artikuluan esaten baita Sozietateak bere gain hartuko dituela Partzuergoak BHT eraikitzeke hitzartzen dituen kredituen ondorioz sortzen diren zorrak, eta dagozkion interesak eta tronkoa ordainduko dituela, horiek iraungi ahala.



Edonola ere, Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu du zerbitzuaz baliatu diren Udalen zama eta % 50ean finantzatzen ari dira Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, nahiz eta Jaurlaritzak 483/94 Dekretu bidez bere erantzukizuna Bilbao-Plentzia linea zaharrak sortutako defizitaren pareko zenbatekora arte mugatu zuen; linea hori Eusko Trenbideak-ek ustiatzen zuen, administrazio honen baitako den sozietatea.

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren sorrera legea eta estatutuak onesten dituen Errege Dekretua, hurrenez hurren, 1975 eta 1976 urtekoak dira eta Bilboko Hiri Trenbidea eraikitzeke egin ziren; eraikuntzak kontrata bidez 9.803 milioi pezetako exekuzio kostua zuen. Partzuergoak sortutako zorrak Bilboko Metroa, SAK bere gain hartzeari dagokionez, komenigarria litzateke aztertzea ea artikulua eta estatutu hauek bat datozen egungo errealitatearekin eta finantza kostu horiek bere gain hartzeak enpresak egiaz gauzatutako kudeaketa desitxuratu dezakeen.

Kontratazioa (ikus A.14)

BM enpresak ondasun, zerbitzu eta inbertsioen erosketarako PROTRANS sektoreen arabeko sailkapen sistema baten datu basea erabiltzen du; erabilera hori 48/1998 Legeak baimentzen du, ura, energia, garraio eta telekomunikabideen sektoreetan kontratazio prozedurak arautzen dituen. Prozedura hau eta 12 kasu zehatzetan gauzatutako kontratazioa aztertu dugu; hona hemen azalera diren akatsak:

- 7 kasutan (4, 6, 7, 8, 9, 11 eta 12 zenbakiak), 4.725 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, esleipenean gardentasuna mugatua dago, eskaintza teknikoaren azpi-irizpideak Pleguetan balio-neurtuak ez daudelako.
- 6 kasutan (7, 8, 9, 10, 11 eta 12 zenbakiak), 8.345 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, pleguen arabeko kontratuaren iraupenean luzapenek jatorrizko kontratuaren iraupena gainditzen dute.
- 5 kasutan (7, 8, 9, 11 eta 12 zenbakiak), 4.445 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, balorazio irizpideen artean kaudimen teknikoari buruzko irizpideak barne hartzen dira.
- 5 kasutan (7, 8, 9, 11 eta 12 zenbakiak), 4.445 mila euroren zenbatekoan esleitutakoak, esleipenaren txosten teknikoak ez dago behar bezain arrazoitua.
- BMren 1. Linea zaintzeko zerbitzuaren espedientean, 3.900 mila euroren zenbatekoan esleitutakoan, hiru bide-zatietatik bakoitzean lehiatzaile ezberdinari esleitzeko erabakia hartu da. Esleipen anitz hau ez zaio legeari egokitzen, izan ere Administrazioak nahitaez kontratua proposamen egokienari esleitu behar baitio (APKLTBren 91.2 artikulua).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Metroak ondoko zerbitzuen erosketara kontratu txikiaren moldeari jarraiki izapidetu zuen:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
Estolda sarea egokitzea eta hobetzea	23
Tunelean arratoi-garbiketa, intsektu kentze zerbitzua.....	23

Ondasun, zerbitzu eta hornigaiak erosteko, horien urteko gastuak, kontzeptu homogeneoen arabera hartuta, kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak gainditzen baditu eta urteroko gastu hori aldakorra dela aurreikusten bada, gure ustez, zer behar den, lizitazioak edo eskaintzak eskatu beharko lirarteke, aleko prezioen arabera.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. URTEKO KONTUAK

III.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

A. 2008-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

Sarrerak	Eransk.	Hasierako aurrek.	Kreditu aldaketa	Behin-betiko aurrekont.	Kitatutako eskubideak	Kobrantz.	Kobratu gabeak
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.6	77.860	-	77.860	68.151	63.627	4.524
4. Transferentzia arruntak	A.7	44.118	-	44.118	44.118	44.118	-
5. Ondare sarrerak		600	-	600	1.159	1.159	-
7. Kapital diru-laguntzak	A.7	42.522	-	42.522	40.022	40.022	-
8. Finantza aktiboen aldak		20	13.328	13.348	9	9	-
9. Finantza pasiboen aldak	A.9	148.020	-	148.020	64.500	64.500	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		313.140	13.328	326.468	217.959	213.435	4.524

Euroak milakotan

Gastuak	Eranskina	Hasierako aurrek.	Kreditu aldaketa	Behin-betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordaink.	Ordaindu gabe
1. Langileen gastuak	A.3	1.827	-	1.827	1.780	1.750	30
2. Erosketak eta zerbitzuak	A.4	81.694	47	81.741	69.975	62.636	7.339
3. Finantza gastuak	A.9	15.872	-	15.872	13.963	11.892	2.071
4. Transferentzia arruntak		12	-	12	10	10	-
6. Inbertsio errealak	A.5	180.597	11.683	192.280	108.203	79.177	29.026
7. Kapital diru-laguntzak		1.045	1.598	2.643	977	977	-
8. Finantza aktiboen aldak		8.920	-	8.920	6.844	5.818	1.026
9. Finantza pasiboen aldak	A.9	23.173	-	23.173	23.174	23.174	-
GASTUAK GUZTIRA		313.140	13.328	326.468	224.926	185.434	39.492

B. AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Euroak milakotan

	Eranskina	Hasierako zorra	Baliogabetz.	Kobr./ Ordaink.	Azken zorra
Zordunak	A.11	4.175	(765)	3.410	-
Hartzekodunak		(20.418)	-	(20.418)	-
AURREKONTU ITXIAK		(16.243)	(765)	(17.008)	-

C. URTEANITZEKO GASTUEN EGOERA

Euroak milakotan

Gastuak	Eranskina	__URTEANITZEKO GASTUAK			
		2009	2010	2011	GUZTIRA
6. Inbertsio errealak	A.8	118.552	36.725	15.475	170.752
GUZTIRA		118.552	36.725	15.475	170.752

D. ZORRAREN EGOERA: Amortizazioaldiak (ikus A.9)

Euroak milakotan

	2009	2010	2011	2012	>2012	GUZTIRA
Maileguak GUZTIRA	37.673	23.173	40.603	28.778	243.916	374.143



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. AURREKONTUAREN EMAITZA Euroak milakotan

1. AURREKONTU ARRUNTA 2008	
Eskubide kitatuak	217.959
Obligazio aitortuak	224.926
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA / DEFIZITA	(6.967)
2. EKITALDI ITXIAK	
Eskubide kitatuak balio gabetzea	(765)
AURREKONTU ITXIEN SUPERABITA / DEFIZITA	(765)
EKITALDIAREN EMAITZA	(7.732)
EMAITZARI DOIKETAK	
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .	7.568
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	(164)

F DIRUZAINZTA GELDIKINA Euroak milakotan

KOBRAZKEKO DAUDEN ZORDUNAK	
Diru-sarreretako aurrekontuetakoa, arrunta	4.524
Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	552
KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK GUZTIRA (A)	5.076
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK	
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	39.492
Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak	693
ORDAINTZEKO DAUDEN OBLIGAZIOAK GUZTIRA (B)	40.185
DIRUZAINZTAKO FONDO LIKIDOAK (C)	40.704
DIRUZAINZTA GELDIKINA (A-B+C)	5.595
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO GELDIKINA	994
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	4.601

G. 2008-KO EMAITZA ETA 08.12.31-N DIRUZAINZTA GELDIKINA Euroak milakotan

DIRUZAINZTA GELDIKINA 07.12.31	13.327
2008-KO EKITALDIAREN EMAITZA	(7.732)
Aurrekontu arruntaren defizita	(6.967)
Aurreko ekitaldietako eragiketen defizita	(765)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 08.12.31-N	5.595



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

G EGOERAREN BALANTZEA, 2008.12.31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2007	2008	PASIBOA	ERANSKINA	2007	2008
IBILGETUA		736.019	814.333	FUNTS PROPIOAK		417.248	444.153
EzmaterialaA.5		450	539	Ondarea		24.080	24.080
MaterialaA.5		572.635	621.155	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		421.231	393.169
Abian dagoen materiala.....A.5		154.945	177.809	Ekitaldiaren emaitza.....		(28.063)	26.904
Finantzarioa.....A.5		7.989	14.830	HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA		309.643	336.469
ZORDUNAK		3.819	5.064	Epe luzeko zorrak		309.643	336.469
Indarreko ekit. aitort. eskub. zordunak		3.012	3.997	HARTZEKODUNAK, EPE LABUR.		43.966	76.832
Taldeko enpres. aitort. eskub. zordunak		398	527	Indar.ekit.agind.ordaink.hartzek.		20.404	38.466
BEZarengatiko zordunak	(*)	227	314	Itxit.ekit.agind.ordaink.hartzek.....		15	-
Beste zordun ez aurrekontuk.	(*)	17	13	BEZarengatiko hartzek.(**)		243	539
Ogas Pub. BEZareng. zordun.....	(*)	165	213	Ogasun Pub. hartzekoduna	(**)	89	96
ALDIZKAKOTZEAG. ZUZENKET.		1.476	141	Giz. aurreik. org. hartzekoduna(**)		4	7
FINANTZA-KONTUAK		29.543	39.692	Epe/lab. jasotako bermeak	(**)	38	50
Inbertsio finantzario iragankorrak		8	(1.012)	Kred. etxeen epe/lab. zorrak.....A.9		23.173	37.674
Epe/lab. emand. aurre. eta kred.	(*)	1	12	ALDIZKAKOTZEAG. ZUZENKET.		-	1.776
Langileei epe/lab. eman. kred.		7	2				
Akzioen gain. egiteko ordaink.		-	(1.026)				
Diruzaintza A.10		29.535	40.704				
AKTIBOA GUZTIRA		770.857	859.230	PASIBOA GUZTIRA		770.857	859.230

(*) 552 (Ikus A.12)

(**) 692 (Ikus A.12)

H. GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

ZOR	ERANSKINA	2007	2008	HARTZEKO	ERANSKINA	2007	2008
Hornidurak		-	36	Negozio zifratik zenbateko garbia.....		63.135	66.226
Langileen gastuak		1.718	1.820	Transf. eta dirul. arruntak	A.7	44.027	44.118
Kanpoko zerbitzuak		67.437	69.974	Emaitzara aldat. kap. tr. eta diru-lag. A.7		40.113	40.022
Zergak eta beste		163	1.004	Kudeaketa arrunteko bestel. sarrerak		198	149
Amortizazioari egindako zuzk.		37.823	36.572	Balore negoziag. sarrerak.....		923	1.159
Finantza gastuak.....		14.800	15.284	Ibilgetua besterentz. mozkina	A.11	-	765
Finantza inbertsioen horniduren bariaz.		11.162	(11.162)	Aparteko moz. eta beste ekit. batz..		2.250	-
Ibilgetutik eratorritako galerak		45.438	11.161				
Aparteko galerak		168	81				
Beste ekitald. gastu eta galerak.....	A.11	-	765				
GASTUAK GUZTIRA		178.709	125.535	DIRU-SARRERAK GUZTIRA		150.646	152.439
Ekitaldiaren emaitzak (mozkinak)		-	26.904	Ekitaldiaren emaitzak (galerak)		28.063	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 BILBOKO METROA SOZINETATE PUBLIKOA, SA

A. EGOERAREN BALANTZEA, 2008.12.31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2008	PASIBOA	ERANSKINA	2008
AKTIBO EZ ARRUNTA:		17.718	ONDARE GARBIA	B.7	18.213
Ukiezina		501	Eskrituran jasotako kapitala		9.357
Materiala	B.5	16.669	Akzioen jaulkitze saria		5.472
Finantzarioa		548	Erretserbak		13.299
AKTIBO ARRUNTA		18.592	Ekitaldiaren emaitza.....		(9.915)
Izakinak		2.389	PASIBO EZ ARRUNTA		982
Merkataritz. zordunak eta kobratz. kontuak		4.101	Epe luzeko hornidurak	B.9	982
Epe motzeko finantza inbertsioak	B.6	8.730	PASIBO ARRUNTA		17.115
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		76	Epe laburreko zorrak.....		1.404
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak ...	B.6	3.296	Taldeko enpresekin zorrak		524
			Merkatar. hartzek. eta kobr. bestel. kntuak		13.749
			Aldizkakotzeak epe laburrera.....		1.438
AKTIBOA GUZTIRA		36.310	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		36.310

B. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2008
Negozio zifratik zenbateko garbia	B.4	50.200
Hornidurak	B.4	(892)
Bestelako ustiaketa sarrerak		1.687
Langileen gastuak	B.3	(27.151)
Bestelako ustiaketa gastuak		(31.832)
lbilgetuaren amortizazioa		(2.873)
lbilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza		(36)
Bestelako emaitzak		524
Ustia ketaren emaitza		(10.373)
Sarrera finantzarioak		458
Emaitza zerga aurretik		(9.915)
Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiaren emaitza		(9.915)
Ekitaldiaren emaitza		(9.915)

C. ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA (B.7 Eranskina)

Euroak milakotan

	ESKRITURATUT. KAPITALA	JAILKIPEN PRIMA	AURREKO EKIT. ERRETSEB.	EKIT. EMAITZ.	EKITALDIAREN EMAITZA	GUZTIRA
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	13.550	5.600	-	(10)	(11.151)	7.989
Irizpide aldaketagatik doikuntzak.....	-	-	13.299	-	-	13.299
EGOKITUTAKO HASIERAKO SALDOA, 2008	13.550	5.600	13.299	(10)	(11.151)	21.288
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	(9.915)	(9.915)
Bazkide edo jabeekiko eragiketak						
Galeren konpentsazioa	-	(5.600)	-	5.600	-	-
Kapitalezko murrizketak	(5.561)	-	-	5.561	-	-
Kapitalaren igoerak.....	1.368	5.472				6.840
Ondare garbiaren bestelako bariazioak	-	-	-	(11.151)	11.151	-
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	9.357	5.472	13.299	-	(9.915)	18.213



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. ESKU-DIRUAREN FLUXUEN EGOERA (B.6 Eranskina)	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
A) USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(4.265)
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(9.915)
Emaitzaren doiketak	2.517
Kapital arruntean aldaketak	2.722
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	411
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(1.667)
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(1.993)
Inbertsio ezagatiko kobrantzak	326
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	6.840
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	6.840
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA (MURRIZKETA) GARBIA	908
ESKUDIRUA EDO BALIOKIDEAK EKITALDI AMAIERAN	2.388
ESKUDIRUA EDO BALIOKIDEAK EKITALDI AMAIERAN	3.296



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 FINANTZA EGOERA KONTOLIDATUAK

A. EGOERAREN BALANTZE KONTOLIDATUA 08.12.31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2008	PASIBOA	2008
IBILGETUA	817.220	BEREZKO FONDOAK	447.536
Ezmateriala	1.040	Ondarea	24.080
Materiala	637.824	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	393.168
Abian dagoen materiala.....	177.808	Ekitaldiaren emaitzak.....	16.988
Finantzarioa	548	Kontolidatutako sozietateetan erretserbak....	13.300
		ARRISKUETARAKO ZUZKIDURAK	982
IZAKINAK	2.389	HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA	336.469
ZORDUNAK	7.595	Epe luzeko zorrak	336.469
FINANTZA-KONTUAK	52.939	HARTZEKODUNAK, EPE LABUR.	95.156
		Hartzekodunak	51.442
		Entitate publikoak.....	1.374
		Zorrak, kreditu erakundeekin.....	39.031
		Epe laburreko bestel. zorrak.....	3.309
AKTIBOA GUZTIRA	880.143	PASIBOA GUZTIRA	880.143

B. GALERA-IRABAZIEN KONTU KONTOLIDATUA

Euroak milakotan

ZOR	2008	HARTZEKO	2008
GASTUAK:		DIRU-SARRERAK:	
Hornidurak	906	Zerbitzuak emateagatiko sarrerak	82.774
Langileen gastuak	28.971	Diru-laguntza arruntak	44.118
Kanpoko zerbitzuak	67.910	Ekit. emaitz. eskualdatutako kapital diru-lag. .	40.055
Zergak eta beste	1.248	Bestel. kudeaketa sarrerak	1.779
Amortizazioari egindako zuzk.	39.445	Balio neg. eta kredituengatiko sarrerak	1.617
Finantza gastuak.....	15.284	Ibilgetua besterentz. mozkina	765
Finantza inbertsioen horniduren bariazioa.....	(11.162)	aparteko mozkinak eta beste ekit. batzuet.....	524
Ibilgetutik eratorritako galerak	11.197		
Aparteko galerak	81		
Aurreko ekitaldietako gastu eta galerak	765		
GASTUAK GUZTIRA	154.645	DIRU-SARRERAK GUZTIRA	171.633
Ekitaldiaren emaitza (mozkinak)	16.988		



HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN ETA METRO BILBAO S.A.-REN 2008-KO KONTUEN FISKALIZAZIOARI BURUZ EGINDAKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

I. ONDORIOAK

I.1 BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

I.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

Alegazioa: Premiazko tramitazioaren salbuespenezko araubidea erabiltzera behartu zuten arrazoiak hobeto ulertzeko, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Azterlan eta Plangintzako zerbitzuburuak 2010eko ekainean egindako txostenaren zati bat erantsiko dugu espediente honetan:

"Aurrekariak"

Ekainaren 1ean, Gobela erreka hazi eta urak 2 metroraino estali zuten Metro Bilbaoren Larrabasterrako geltokiko gela teknikoa.

Kalteak

Urak guztiz hondatu ditu katigamenduaren ekipo elektronikoak. Hasieran, trena ezin izan zen segurtasunez ibili katigamenduaren eremuan, hau da, Sopela eta Berangoko geltokien artean.

Ekainean eta uztailan ez zen blokeo automatikorik egon, mugimenduak ez zeuden seinale bidez babestuta, ez zegoen trenen babes automatikorik, ez ATP ez gidatze automatikorik, ez ATOrik. Hori dela eta, trenak telefonozko blokeoarekin ibili ziren, gidariaren segurtasun hutsarekin. Trenbide-segurtasunik ez izateaz gain, trenek ezin zuten bueltarik eman Larrabasterrako geltokian; horregatik, geltoki horretan maiztasuna gutxitu egin zen udan: 10 minutuan behin izatetik, 20 minutuan behin izatera pasatu zen.

2008ko abuztutik 2009ko martxora bitartean, funtzioak eta fidagarritasuna mugatuta zeukan katigamenduarekin ibili behar izan zen. Salbuespenezko neurriak hartu ziren mantentze- eta operazio-lanetan.

Berehalako jarduerak

2008ko ekainaren 5ean, BGPren zerbitzu teknikoek Larrabasterrako katigamenduaren premiazko espedienteari buruzko jardueren inguruko txostena egin zen.

2008ko ekainaren 27an, gutun bat igorri zitzaion Eduardo Sanchez de Bombardier jaunari; bertan, Gobela ibaiaren goraldiaren ondorioz Larrabasterrako geltokian izandako uholdeen berri eman zitzaion.

2008ko uztailaren 2an, BGPren zerbitzu teknikoek Larrabasterrako Katigamenduaren premiazko espedienteari dagozkion jardueren inguruko txostena egin zuten. (OHARRA: argitu ez dela akatsa)

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak, 2008ko uztailaren 3an izandako bileran, BMTren Larrabasterrako geltokiko katigamendu berriaren hornidura kontratatzeko eta bertako gela tekniko berrian obra zibila egiteko presazko tramitazioaren inguruan, besteak beste, honako erabakiak hartu zituen:



BIGARRENA.- BOMBARDIER EUROPEAN INVESTMENTS, S.L.U enpresari adjudikatzea, behin-behinekoan, "Bilboko Metropoli Trenbidearen Larrabasterrako geltokiko katigamendu berriaren horniketa" egiteko Kontratua. Zenbatekoa: MILIOI BAT HIRUREHUN ETA HAMALAU MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (1.314.494,17 euro), BEZ barne. Exekuzio-epaia: sei (6) hilabete.

(...)

2008ko irailaren 25ean, BMTren Larrabasterrako geltokiko katigamendu berria hornitzeko administrazio kontratua sinatu zen Bizkaiko Garraio Partzuergoa eta BOMBARDIER EUROPEAN INVESTMENTS, S.L.U, enpresaren artean, 6 hilabeteko epearekin.

(...)

Prozeduraren justifikazioak

Uholdeak gertatu eta gero, honako erabakiak hartu ziren:

- Katigamendua berreskuratzea.
- Katigamendu berria enkargatzea, CENELEC araudiaren arabera, trenbide-segurtasuneko software baten fidagarritasuna izango zuena.
- Ingeniaritza lanak idazteko agindua ematea.

Metro Bilbao funtzionamenduan dabilen 13 urte hauetan inoiz ez da urpean gelditu Larrabasterrako geltokiko nasa azpian dagoen gela teknikoa, hau da, segurtasun instalazioak eta katigamendu elektrikoa dituen.

Gertaera larri horren ostean, katigamendua berreskuratzen saiatu ginen. Berreskuratutako katigamendua zerbitzuan jarri zen uztailean; hala ere, zerbitzu mugatua ematen zuen, tresneria elektronikoa hiru egun egon baitzen urpean. Salbuespenezko beste neurri batzuk ere hartu ziren ustiapenean, katigamendu horrek ez zuelako bermatzen funtzionamendu zuzenik ez fidagarririk.

Bestalde, uholde arriskurik ez dagoen geltoki ondoko beste toki batean jarri zen gela teknikoa.

Sestao - Portugalete eta Portugalete - Santurtzi bide-zatietarako seinaleztapen sistemen eta katigamenduen kontratu-epeak 15 hilabetekoak izan ziren.

Sestao - Portugalete bide-zatiaren seinaleztapen proiektuaren adjudikazio-ziurtagiria 2005eko uztailearen 27koa da, eta hartze-aktarena, 2007ko urtarrilaren 15ekoa.

Portugalete - Santurtzi bide-zatiaren seinaleztapen proiektuaren adjudikazio-ziurtagiria 2007ko uztailearen 26koa da, eta hartze-aktarena, 2007ko abenduaren 20ekoa.

Horregatik, lehenasuna eman zitzaion Bombardier-i egindako jakinarazpenari, katigamendu berria diseinatu, fabrikatu eta hornitu zezan, eta horren adjudikazioa 2008ko uztailearen 3an onartu zen, 6 hilabeteko epearekin.

(...)"



Premiazko espedientearen salbuespenezko kasuaren araubide juridikoari dagokionez, berriz, adierazi behar da SPKLren 97. artikuluan dagoela araututa. Auzitegi Gorenaren 1987-01-20ko epaiak bereiztu egiten du premiazko kontzeptua larrialdi kontzeptutik. Horren harira dio erregimen berezi hori eragin duten kasuen azterketa zorrotasun osoz egin behar dela. Izan ere, administratuen aukerak berdinak direla bermatzeko printzipioa ez babesteak arriskua dakar. Hain zuzen ere, oinarriko printzipio horrek administrazio kontratu guztiak bultzatzen ditu. Horrela, bide batez, administrazioko moralitasuna bermatzen da. Erantsi du ez dela nahikoa aparteko garrantzia duen gertakari bat egotea, eta horri aurre egiteko neurriak erabiltzeko egoera agertzea. Hortaz, administrazioaren berehalako jokaera ezartzen du emergentziako araudiak. Jokaera hori guztiz beharrezkoa izango da, gertakari horren ondorioak ahal den neurrian saihesteko edo ekiditeko. Antzekoa jasotzen du Auzitegi Gorenaren 1983-04-07ko epaiak. Horrela, Administrazioak berehala jokatu behar duenean, hondamendiak, arrisku larria dakarten egoerak edo estatuaren defentsarako beharrak direla eta (Toki Administraziorako Toki Araubideari buruzko Testu Bateginaren 117. artikulua - SPKLren Xedapen Indargabetzaile bakarrak berariaz indargabetu gabeko agindua- "defentsa nazionala" terminoaren ordez segurtasun publikoa jarri du), Sektore Publikoaren Kontratueterako Legearen 97. artikuluan aurreikusitako erregimen berezia hartuko da kontuan.

Beraz, transkribatu den txosten teknikoak eta bereziki 2008ko ekainaren 5ean Azterlan eta Plangintza Zerbitzuak egindako txostenak ezohiko eta premiazko prozedura hori erabiltzea justifikatzen dute, azken uholdeetan sortu zen "bidaiarien segurtasunerako egoera larri eta arriskutsuan". Izan ere, espedientetik ondorioztatzen denez, bidaiarientzat benetako arriskua egon zen 2008ko ekainean izandako uholdeen ondorioz. Egoera horren aurrean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak katigamendu berriaren hornidura adjudikatzea onartu zuen uztailaren 3an. Kontratu hori geroago sinatu bazen ere - hala baimentzen baitu Legearen 97. artikulua a) atalean-, prestazioen exekuzioa akordioak hartu eta hilabeteko epean hasi zen, artikulua horrek berak e) atalean xedatzen duenez.

Aurrekoaz gain, esan behar da Legearen 154 e) artikuluan aurreikusten den prozedura negoziatu bidezko tramitazioak ez zukeela utziko bidaiarientzako arrisku egoerak eskatzen zuen azkartasunez jokatzeko. Izan ere, kasu horretan, aurretik kontratazio espedientea tramitatu beharko zen, gastua baimendu eta administrazio klausula berezien eta preskripzio teknikoen pleguak idatzi ondoren.

Kasu honetan, beraz, justifikatuta dago ezohiko eta premiazko prozedura erabiltzea, azken uholdeen ondorioz "bidaiarien segurtasunerako sortu zen egoera kritiko eta arriskutsuan". Balizko hori bat dator tramitea ahalbidetzen duen legezko aurreikuspenarekin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

- I. Eranskina: Sestao - Portugalete bide-zatiaren seinaleztapen proiektuaren adjudikazio-ziurtagiria
- II. Eranskina: Sestao - Portugalete bide-zatiaren seinaleztapen proiektuaren hartze-akta
- III. Eranskina: Portugalete - Santurtzi bide-zatiaren seinaleztapen proiektuaren adjudikazio-ziurtagiria.
- IV. Eranskina: Portugalete - Santurtzi bide-zatiaren seinaleztapen proiektuaren hartze-akta.

Alegazioa: Espediente hau hobeto ulertzeko, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Plangintza eta Finantza Azterlanetako zerbitzuberuak 2010eko ekainean egindako txostenaren edukia kopiatu dugu:

"Aurrekariak"

9 tren unitate hornitzeko kontratua 2007ko abenduaren 3an sinatu zen, 23 hilabeteko epearekin. Kontratuaren hasiera 2008ko martxoaren 15ean izan zen eta amaiera 2010eko otsailaren 15erako zegoen aurreikusita.

2008ko otsailaren 19an, BGPren Kontseilu Nagusiak Metro Bilbaorako behar ziren atoidun bagoien kopuruari buruzko txostena onartu zuen.

9 atoidun bagoi hornitzeko kontratua 2008ko martxoaren 7an sinatu zen, 23 hilabeteko epearekin. Kontratuaren hasiera 2008ko ekainaren 7an izan zen, eta amaiera 2010eko maiatzaren 7rako zegoen aurreikusita.

13 atoidun bagoi hornitzeko kontratua 2008ko abuztuaren 6an sinatu zen, 23 hilabeteko epearekin. Kontratuaren hasiera 2008ko urriaren 15ean izan zen eta amaiera 2010eko irailaren 15erako zegoen aurreikusita.

9 atoidun bagoiko kontratuari buruzko azalpenak

Kontseilu Nagusiak 2008ko otsailaren 19an onartu zuen 1384-08 Txostenean, honakoa dio:

Bide-zati hauetarako zerbitzua irekitzeko:

- Peñota – Santurtzi bide-zatia, 2009. urtea
- Bidezabal – Ibarbengoa bide-zatia, 2009. urtea
- Ariz – Basauri bide-zatiak, 2010. urtea
- Santurtzi – Kabiezes bide-zatia, 2011. urtea

Hauek dira txosten horretatik atera daitezkeen ondorioak:

- Metroa ezkerraldera iristeak areagotu egingo du garraio publiko bidezko mugikortasuna; izan ere, garraio-moduen banaketa berri bat egongo da Portugaleten, Santurtzin edo Basaurin garraio publikoaren eskaintza gehitzen denean. Mugikortasun berri honi eragindako mugikortasuna deituko zaio.
- Garraio publikoan dagoen mugikortasuna, egunean 557 mila lekualdatzekoa da gaur egun, eta 2011n, 627 milara iritsiko da. Hazkunde hori garapenetatik eta eragindako mugikortasunetik etorriko da.
- /.../
- Horregatik, gomendagarria da plazak %25 gehitzea jenderik gehien dabilen orduetan, espero den eskariari erantzun nahi bazaio.



Trenen bidaiari kopurua:

- 4 bagoiko trena: 592 bidaiari
- 5 bagoiko trena, 741 bidaiari.

Aurreikusten denez, 2011rako 22 atoidun bagoi beharko dira.

Txosten horretan proposatutakoaren arabera, bosgarren bagoidun 22 unitateak honela hornituko dira:

- 9 bosgarren bagoi 9 tren unitateak hornitzen direnean Bizkaiko Garraio Partzuergoak eta CAFek. Horniketa horrek 9 Tren Unitateren Horniketa Osagarriaren figura administratiboa izan dezake. 2009ko uztaila eta azaroa bitartean entregatuko lirateke.
- 13 bosgarren bagoi, lehiaketa berri gisa; entregatzeko epea, 2010eko urtarrila eta uztaila bitartean.

Gure ustez, bi enpresa hornitzailek ezin dute tren unitate berean batera lan egin, hau da, batak lehenengo 4 bagoiak hornitzea eta bigarrenak bosgarren bagoia; izan ere, tren unitate batek hainbat proba gainditu behar ditu: lantegiko probak, trenbideko probak eta ustiapen probak. Baldintza teknikoen pleguan zehaztuta dagoenez, unitate bat ez da hartzen fidagarritasun parametro batzuk betetzen ez baditu. Horregatik, fase hori gainditu arte, ezin du beste enpresa batek unitatean jardun.

Beraz, ezin da onartu kontratu-oinarriren bat ez dela bete, espedientea behar bezala tramitatu baitzen; hala ageri da Azterlan eta Plangintza Zerbitzuaren 2008ko urtarrilaren 31ko txostenean, Kontu-hartzaile Nagusiak kreditua bazegoela egiaztatuz 2008ko otsailaren 4an egindakoan eta Idazkariak 2008ko urtarrilaren 31n egindakoan. Baldintza Teknikoen Plegua beste honi erantsita dago, hots, "Metro Bilbaoren Zerbitzurako 9 Tren Unitate Diseinatu, Fabrikatu eta Hornitzeko 1. Proiektu Osagarriari", eta Administrazio Klausula Berezien Pleguari.

Adjudikazio-prozedura legezkoa da erabat, Sektore Publikoaren Kontratueterako Legearen 157. c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin baita, HAKLTBren 182. e) artikuluan ezarritako terminoetan:

"c) Hasierako hornitzaileak eginiko entrega osagarriak, honako kasuetan: erabilera arrunteko hornidura nahiz instalazioak berrezartzeko direnean, edo lehenagotik zeuden hornidura nahiz instalazioak handitzeko, betiere hornitzailez aldatuz gero, Administrazioak ezaugarri tekniko desberdinak dituen materiala eskuratu beharko balu, eta erabiltzeko nahiz mantentzeko neurrigabeko bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak sortuko balitu. Kontratu horien iraupena eta kontratu berriztagarriena, oro har, ez da izango hiru urte baino gehiagokoa".

Izan ere, hala dago jasota aipatu dugun 2008ko urtarrilaren 31ko txosten tekniko horretan:

"Bilboko Metropoli Trenbidearentzat bederatzi Tren Unitate Diseinatu, Fabrikatu eta Hornitzeko kontratu honetan definitu diren hornidurak eta hornidura horien exekuzioa aldi berean gauzatu behar direnez, komenigarria iruditu zaigu, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 182-e artikuluekin bat etorritik, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarril C.A.F. enpresari zuzenean adjudikatzea, bera baita hornidura nagusia kontratatu zaion enpresa. Aipatu artikulua arabera, baimenduta dago hasierako hornitzaileak entrega osagarriak egitea, lehengo hornidura edo instalazioen hedapen gisa; izan ere, hornitzaileak aldatuz gero, Administrazioak ezaugarri tekniko ezberdinak dituen materiala erosi beharko luke, kasu honetan gertatzen den bezala".

Kontuan hartu behar da bateratzeko arazo larriak sortu daitezkeela "aurreko" unitateen eta hartutako soluzioa hartzera behartu zuten "besteen" artean.



Ondorioz, esan behar da espedientean justifikatuta daudela hasierako hornitzaileari hornidura kontratatzerako behartu zuten premia teknikoak, betiere Sektore Publikoaren Kontratueterako Legearen 157. c) artikuluko terminoen arabera; beraz, ez da inolako kontratu oinarririk urratu.

ERANSKINA

Eranskina: Materialaren eta zerbitzuaren fidagarritasunari buruzko pleguaren laburpena

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aipatzen dituen 7 publizitate kontratuei dagokienez, berriz, Epaitegiak berak emandako zerrendaren arabera, ondoren azaltzen diren hauei dagozkie; nolahi ere, Epaitegiak bere irizpideen arabera sailkatu ditu:

Lehen multzoa:

- 1-a) Gizatrans kanpaina. Publizitate-iragarki batzuk argitaratzea
- 1-b) Gizatrans agiriaren eta txartelaren diseinua, zirriborroa eta akabera
- 1-c) Gizatrans txartelaren iragarkia Correon argitaratzea eta egokitzea
- 1-d) Gizatrans txartelaren iragarkia Garan argitaratzea eta egokitzea
- 1-e) Gizatrans txartelaren iragarkia Deian argitaratzea eta egokitzea
- 1-f) Gizatrans txartelaren iragarkia 20 minutos egunkarian argitaratzea eta egokitzea

Egindako kanpainak eta iragarkiak ezberdinak dira eta datak ere bai; zati bat diseinuari, zirriborroari eta abarri dagokio, eta bestea iragarkiak argitaratu eta egokitzeari. Lan horiek guztiak Gizatrans txartela ahalik eta gehien ezagutarazi, erabilera ezarri eta hedatzeko premien arabera egin dira. Publizitate hori ezin da ekintza bakartzat hartu; unean uneko egoerak, sortzen diren arazoez, jasotzen diren eskaerak eta iradokizunek, eta txartel bakoitzaren egoerak agintzen dute zer-nolako lana egin behar den, eta zer erabiltzaile motari zuzendu behar zaion. Gainera, 1-c), 1-d) eta 1-e) kontratuek, hots, Gizatrans txartelen iragarkiak argitaratzeko eta egokitzeko egin zirenek (Correo egunkarian 6.028 euro, Garan 4.142 euro, eta Deian 4.216 euro), ez dute gainditzen, oro har, SPKLn kontratu txikietarako ezarrita dagoen kopurua. Gainerakoak urtarrilean, martxoan eta uztailean egin dira, beharrezko izan direnean.

Bigarrena multzoa:

- 2-a) Geltoki batzuetako obrei buruzko informazio kanpaina (Deia, Gara, Berria)
- 2-b) Geltoki batzuetako obrei buruzko informazio kanpaina (Nervión, Qué, Bilbao)
- 2-c) Metro geltokietako seinaleztapenari buruzko informazio kanpaina
- 2-d) Geltoki batzuetako obrei buruzko informazio kanpaina. Informazio-liburuxka
- 2-e) Abisuak eta autobusei buruzko kartelak, bosgarren bagoira aldatzeko kanpainan.



Egindako kanpainak ezberdinak dira eta geltoki ezberdinei dagozkie, hau da, unean-unean obrak egin diren geltokiei (Lutxanako geltokia eta Casco Viejo geltokia). Geltokietan egin diren obrak ezberdinak dira, eta lan horiei buruzko publizitatea ezin da aurreikusi, ez aurrez erabakitako epean eskatu (urteko egitarau baten arabera); kasu bakoitzean obren erritmoari egokitu behar zaio, eta lan batzuk bidaiari gutxi zebilenean egin behar izan dira. Gainera, 2-c) eta 2-d) kontratuek, hots, geltokietako seinaleztapenari eta obrei buruzko informazio kanpainari zegozkienak (7.950 eurokoa eta 8.902 eurokoa), ez dute gainditzen, oro har, SPKLn kontratu txikietarako ezarrita dagoen kopurua. Bistakoa da ezin dela nahastu jarduera jakin bateko obrei buruzko informazioa eta BMTren lineetan dauden geltoki guztietako seinaleztapenari buruzko informazioa. Unean-unean egindako publizitatea zenbait obra egin behar izanak eragin du. Obra horiek ez dira denak batera egiten eta xede ezberdinak dituzte; beraz, publizitate ezberdina eta berezia behar izan dute.

Hirugarren multzoa:

- 3-a) PINen standa muntatzeko obra
- 3-b) PINen standa muntatzeko alokairua, aseguruua eta mantentze-lana.
- 3-c) PINeko standean arreta emateko monitore zerbitzua
- 3-d) PINeko standa. (muntaketa, alokairua eta monitoreak)

BGPri eta garraio publikoari buruzko informazioa PINen ematea erabaki izanak ez du esan nahi behar diren obra, zerbitzu eta horniketa guztiak, nahitaez, batera kontratatu behar direnik (bulego batean behar diren lan guztiak ere ez dira batera kontratatzen). Bistakoa da, beraz, standaren obra kontratatzeak ez duela zerikusirik alokairuarekin, aseguruarekin eta standaren mantentze-lanarekin, ezta horiek guztiek monitore zerbitzuarekin ere. Gainera, kasu guztietan, oso-osorik erantzun zaio kontratuaren xede bakoitzari.

Laugarren multzoa:

- 4-a) Irratiko iragarki laburrak
- 4-b) Radio Euskadi irratiko iragarki laburrak
- 4-c) Irratiko iragarki laburrak Ser Katean

Zenbait kasutan a priori jakin ezin diren publizitate premiak sortu dira, eta ezin izan dira aurretik programatu eta planifikatu. Publizitatea egiteko modua berdina izateak ez du esan nahi kontratu horien xedea zatikatu denik; izan ere, denek ez dute eduki bera, eta sasoi ezberdinetan egin dira. Unean uneko beharrei erantzuteko, behar den bakoitzean informazioa ematen da, publizitate bidez. Gainera, 2 hedabidetan egindako publizitateak, 2008ko apirilaren 8an onartu zenak (iragarki laburrak Radio Euskadi irratian eta iragarki laburrak Ser Katean, 4.650 eurokoa eta 5.055 eurokoa, hurrenez hurren), ez ditu gainditzen kontratu txikietarako ezarrita dauden mugak. Gainerako iragarki laburrak, "data ezberdinetan" onartu zirenak, apirilaren 8an onartutakoei erantsi zaizkie, baina une ezberdinetan egin ziren.



Bosgarren multzoa:

- 5-a) "Garraio publikoari buruzko txostenaren" edukiak
- 5-b) "Garraio publikoari buruzko txostenaren" inprimaketa

Adjudikazio-hartzailea bat bera izan arren, egin beharreko lanen xedea eta zentzua ez da bakarra; hau da, bereizita daude, argi eta garbi (edukiak prestatzeko egin behar den lana eta koadernatze-lana ez dira inondik ere gauza bera).

Seigarren multzoa:

- 6-d) Prentsan iragarkiak argitaratzea.
- 6-b) DEIAN iragarkia argitaratzea
- 6-c) Estrategia Empresarial Urtekarian publizitate iragarkia argitaratzea.
- 6-d) Prentsan iragarkiak argitaratzea.
- 6-e) Familia ugarienezako deskontuei buruzko iragarkiak prentsan

Gastu horietako bakoitzak bere funtsezko unitatea du, xedeak ere bereziak baitituzte; beraz, ezin da ondorioztatu kontratazio bateratu baten zatiketa artifiziale egin denik. Gainera, gastu horiek ezin dira aurrez ikusi, ez aurretik zehaztutako epean eskatu (aurretik aldizkako programazioa eginez); izan ere, horiek guztiak urteko sasoi ezberdinetan egin dira.

Zazpigarren multzoa:

- 7-a) "Gizatrans informazio kanpaina"ko liburuxkak
- 7-b) "Maidaganeko Lurperatzea"ri buruzko liburuxkak; datu-basea, gutunak eta liburuxkak.
- 7-c) "Maidaganeko Lurperatzea"ri buruzko liburuxkak; diseinua eta inprimaketa.

Gizatrans-i buruzko informazio kanpainarako publizitate kontratuak ez du zerikusirik beste obra batzuk direla-eta egindako kanpainekin. Kontratuak zeharo ezberdinak dira eta sasoi ezberdinetan egin dira. Publizitate mota hori liburuxka bidez egiteak ez du esan nahi kontratu-xede bera duenik. kontratu batean edo gehiagotan eskatzen diren zerbitzuak edo ondasunak behar horri erantzuten zaion unean bertan multzokatzen dira, betiere xedearen arabera, eta ezin dira a posteriori egin, onartutako gastuen izendapenean antzekotasunak bilatuta. Zenbait zerbitzuek ezaugarri bereziak dituzte, aurre egin beharreko gaia oso ezberdina delako bestekin konparatuta, nahiz eta itxuraz antzekoak izan. Antzekotasun horietatik ezin da nahitaez ondorioztatu, eresketa prozesuan berezko unitate bat egin behar izan denik.

Oro har, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako multzo bakoitzaren xehetasunak aztertu ondoren, esan daiteke horien guztien kontratu-xedeek kontratu txikien izaera dutela, berariazko lanak, ezberdinak eta ez osagarriak direlako, hau da, Sektore Publikoaren Kontratu-erako Legearen 122 3. artikuluan ezarritakoarekin bat datozenak. Beraz, "zuzenean adjudikatu ahal zaizkio jarduteko gaitasuna eta prestazioa emateko behar den gaikuntza profesionala duen edozein enpresari", manu horrek adierazten duen bezala, eta 95. artikuluan ezarritako tramiteak betez gero eta adjudikazio prozeduran ez betetzerik izan ez bada. Lan horiek guztiak ez dira enpresari beraren alde egin; gainera, kontratu-xede ezberdina dute, eta ez dira aldi berean egin.

Horri dagokionez, gogoratu behar da kontratuaren xede osoa hartu beharraren arrazoa - lizitazioari eta adjudikazioari begira (SPKLren 93.2 artikulua) lotetan zatitzeari buruz 74. artikulua 3. atalean aurreikusitakoaren kalterik gabe-, lege-iruzurrezko praktikari aurre egitea dela, hots, kontratua zatikatzea horren kopurua gutxitzeko eta publizitate-baldintzak edo adjudikazio prozedurari dagozkionak saihesteko (SPKLren 74.2 artikulua). Horiek horrela, goian aipatutako jarduera gehienak publizitate gastuei dagozkie, eta horien adjudikazioak aztertuz gero, ikusten da publizitate jarduerak enpresa bati baino gehiagori agindu zaizkiela; beraz, ezin da ondorioztatu kontratu-xedea zatikatu denik, ezin da esan konkurrentziari ihes egiteko ahalegina izan denik, eta ondorioz, ez da urratu kontratuen araudia. Kontratu txikiak ez daude debekatuta, eta administrazioaren kontratuetarako legeria osatzen dute, kudeaketa azkarragoa eta eraginkorragoa egin ahal izateko. Kontuan hartu behar da BGPren helburua edo jarduerak bereziak direla: garraio publikoa. Helburu espezifiko bat izateak dakar (beste administrazioetan ez bezala, jarduera anitz izaten baitituzte) hemen egiten diren lan askotan kontzeptuak eta erabili ohi diren izendapen batzuk bat etortzea.

Badirudi Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako multzokatzea irizpide subjektibo baten arabera egin dela, eta alde batera utzi duela premiak sortu ahala jarduerak egunero kudeatu beharra. Kontratuen izenburuetan hitz berdinak agertzea ez da arrazoi nahikoa zatikatzea egon den edo ez epaitzeko; egiaztatu egin daiteke kontratu bakoitzak xede berezia izan duela eta modu independentean bete daitekeela Administrazioaren beharrak asetzeko. Kontratu horien xede bakoitza bere osotasunean dago zehaztuta, lan bakoitzak beharrezko diren elementu guztiak hartzen ditu bere baitan, eta horrek baztertu egiten du zatikatu ahal izatea. Beste edozein eratarik multzokatu zitezkeen kontratuak eta beste emaitza batzuk lortuko ziren, eta ez zuten kontratu zatikatuak direla esateko mugarik gaindituko.

Gainera, zerrendan ageri diren kontratu-xedeak osagarriak direla esateko itxura izan dezakete, baina ez dira, eta ezin dira aldi berean kontratatu (prozesu berean); aitzitik, unean uneko premien arabera eskuratzea eskatzen dute. Zatikatzeko dagoela esan daiteke, programatu daitezkeen jardueren hautaketa-prozesu bat dagoenean (deialdirako beharrak eta zerbitzuak zalantzarik gabe zehaztu daitezkeenean). Oro har, erantzuna izan duten beharrak ezin dira hasieratik aurreikusi, eta ez dago modurik esateko benetan, zehatz eta objektiboki horien premia izango dela. Beharrak sortu egiten dira eta behar horiei ezarrita dagoen lege-prozedura aplikatzen zaie. Horren frogak da Herri Kontuen Epaitegiak aipatutako kasu guztiak prozesu ezberdinetan gauzatu direla (zenbait baldintzaren arabera, hau da, aurretiko aurrekontuak edo onartzeko ebazpenak behar izatea, fakturak bidali behar izatea eta abar), eta hor ikusten da ez zaiela ihes egin nahi izan beste kontratazio prozesu batzuei.

BGPk unean-unean aztertu du jarduera bakoitzaren aukera eta egokitasuna. Hori dela-eta, gogoratu behar da, doktrinak dioenez, faseka, atalka edo multzoka exekutatzeko ez dela zatikatzea. Beraz, ezin da aditzera eman kontratu-xede asko dituen espediente bakar bat tramitatu dela; izan ere, organo kudeatzaileei dagokie une bakoitzean zeren premia dagoen erabakitzea eta behar horiei dagokien lege-prozedura aplikatuko zaie.

Administrazio honek eraginkortasun eta azkartasun printzipioen arabera jokatu du, ordenamendu juridikoak ezarritako muga barruan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. BARNEKO KONTROL-SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

II.1 INBERTSIO-PLANA, FINANTZA PLANA ETA FINANTZA EGOERA

Alegazioa: BGPk, bere Kontseilu Nagusiak 2006ko abenduaren 19an harturiko erabakiaren bidez, 3. linearako behar ziren zenbatekoak barne hartu zituen bere Finantza Planean; geroago, 2008ko abenduko Finantza Plana onartu zenean, zenbateko horiek kendu zituen, urte bereko abenduaren 16ko Kontseilu Nagusiaren erabaki bidez. Partzuergoak ez du erabakirik hartu 3. linearen inguruan beste administrazioek gauzatu dituzten jardueri dagokienez; horregatik, ezin daiteke esan Bilboko Metropoli Trenbideko 3. linearen finantzaketak Bizkaiko Garraio Partzuergoaren onespena duenik.

II.2 BMT-REKIN LOTUTAKO AZPIEGITUREN TITULARTASUNA

Alegazioa: Bilboko Metropoli Trenbideari lotutako azpiegituren titulartasuna Bizkaiko Garraio Partzuergoari eskualdatu ez izana, ez da inolaz ere, erakunde honi egozteko modukoa; izan ere, nabaria denez, legezko eta estatutuen arabera betekizun hori ez dago bere esku, Eusko Jaurlaritzaren esku baizik, azken hori baita gaur egun azpiegitura horien titularra. Betiere, Partzuergoa eratu zuen abenduaren 30eko 44/1975 Legean eta bere Estatutuetan (ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretu bidez onartutakoak), nahiz abenduaren 27ko Dekretuaren artikulua Bakarraren 2. atalean xedatutakoarekin bat etorritz. Azken horren bidez arautzen da Bilbo-Areeta, Areeta-Plentzia eta Elorrieta-Plentzia arteko trenbide-lineen ustiapenaren lagatzea, Bilboko Metropoli Trenbidearen 1. linearen alde. Esan beharra dago, esku-aldatze horren inguruko Dekretu Proiektu bat ere badagoela, argitaratu ez zena. (Eranskin gisa gehitu da).

ETS sarearen inbentarioa egiteko (Metro Bilbao barne) Euskal Trenbide Sareak (ETS) deituriko lehiaketa dela-eta, 2006an, BGPk lan horri dagokion zatia emateko eskatu zion ETSri. Gure ustez, beraz, euskal trenbide sarearen inbentarioa, Metro Bilbaori dagokiona barne, ETSk egin zuen. Hortaz, gure ustez, gabezia hori ezin dakiok BGPri egotzi; bera da ondasunen titulartasuna jaso duena eta, era berean, prest dago, legez ezarritako moduan, emango zaizkion ondasunak jasotzeko; izan ere, orain arte garraio-zerbitzua emateko erabiltzen izan ditu, Metro Bilbao, S.A-ren bitartez. Entrega hori egin behar duen administrazioa da, beraz, gabezia hori konpondu behar duena. (Ondasunen inguruan BGPk ETSri bidalitako idazkiaren kopia erantsi da).

II.3 KONTRATAZIOA

Txostenean zehazten denez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 9 espediente berrikusi ditu guztira, eta atzemandako gorabeherak azaltzen dira.

Jarraian, gorabehera bakoitzari dagokion erantzuna ematen zaio:

- Arazo honi dagokionez, esan beharra dago, atzerapen hori zereginak pilatu zirelako gertatu zela. Hala ere, erantsi behar da, atzerapen horrekin ez dela bidezko eskubiderik edo interesik hautsi; izan ere, adjudikazioaren jakinarazpena epearen barruan eta legez ezarritako baldintzen arabera egin zen. Beraz, argitalpena berandu egin zen, -eta hori saihestu beharra dago-, baina legez ezarritako epeen ez-betetzea baino ez zen gertatu.
- Kontratua 2008ko maiatzaren 9an sinatu zen, eta zuinketa-akta, berriz, abuztuaren 9an; hau da, Santurtziko geltokiaren erabilgarritasunak lanak hasteko aukera ematen zuenean. Jakina denez, Bizkaiko Garraio Partzuergoa eratu zuen abenduaren 30eko 44/1975 Legean ezarritakoarekin bat etorritz, Bilboko Metropoli Trenbideko azpiegitura-obren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

exekuzioa Eusko Jaurlaritzari dagokio; azken hori da obra horiek gauzatzen dituen, Eusko Trenbide Sarearen (ETS) bidez. Horiek bukatu gabe, beraz, Partzuergoak ezin dio ekin bere eskumeneko kontratuen exekuzioari, hau da, gainegituraren exekuzioari. Horregatik, zuinketa egiaztatzeko egintzan gertatutako atzerapena ez da Bizkaiko Garraio Partzuergoari egozteko modukoa.

- Espedientean ageri den Portugalete-Santurtzi bide-zatiko 4. Loteko Gainegitura Proiektuen Eskaintzak Alderatzeko Txostenean (Txartelak Saldu eta Balioztatze Sistema) honako puntuazioak agertzen dira:

VVVV:	57 puntu
XXXX:	77 puntu
YYYY:	36 puntu
ZZZZ:	78 puntu

Ondorengo taulan xehatu ditugu:

VVVV.-REN ESKAINTZA KONTZEPTUA	PUNTUAK	
	Partzialak	Guztira
Proposamenaren analisi teknikoa	-	19
Ekipoen ezaugarri tekniko eta funtzionalak	6	-
Kontratuko prozesuen programaketa	6	-
Hobekuntza teknikoak	1	-
Segurtasuna eta Osasuna	4	-
Fidagarritasuna	2	-
Eskaintza-egilearen gaitasun teknikoa	-	19
Eskura dauden baliabideak eta kalitatearen kudeaketa ..	8	-
Makinak	4	-
Azpi-kontratistak.....	4	-
Dokumentazioa entregatzeko plangintza eta ikastaroak	3	-
Proposamen ekonomikoa	-	12
Eskainitako epea	-	7
GUZTIRA	-	57



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

XXXX-REN ESKAINTZA		PUNTUAK
KONTZEPTUA	Partzialak	Guztira
Proposamenaren analisi teknikoa	-	23
Ekipoen ezaugarri tekniko eta funtzionalak	7	-
Kontratuko prozesuen programazioa	6	-
Hobekuntza teknikoak	4	-
Segurtasuna eta Osasuna	3	-
Fidagarritasuna	3	-
Eskaintza-egilearen gaitasun teknikoa	-	-
Eskura dauden baliabideak eta kalitatearen kudeaketa ..	9	24
Makinak	5	
Azpi-kontratistak.....	5	
Dokumentazioa entregatzeko plangintza eta ikastaroak	5	
Proposamen ekonomikoa	-	22
Eskainitako epea	-	8
GUZTIRA	-	77

YYYY-REN ESKAINTZA		PUNTUAK
KONTZEPTUA	Partzialak	Guztira
Proposamenaren analisi teknikoa	-	14
Ekipoen ezaugarri tekniko eta funtzionalak	6	-
Kontratuko prozesuen programaketa	4	-
Hobekuntza teknikoak	1	-
Segurtasuna eta Osasuna	1	-
Fidagarritasuna	2	-
Eskaintza-egilearen gaitasun teknikoa	-	7
Eskura dauden baliabideak eta kalitatearen kudeaketa ..	4	-
Makinak	1	-
Azpi-kontratistak.....	1	-
Dokumentazioa entregatzeko plangintza eta ikastaroak	1	-
Proposamen ekonomikoa	-	8
Eskainitako epea	-	7
GUZTIRA	-	36



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZZZZ-REN ESKAINTZA		PUNTUAK	
KONTZEPTUA	Partzialak	Guztira	
Proposamenaren analisi teknikoa			28
Ekipoen ezaugarri tekniko eta funtzionalak	9		-
Kontratuko prozesuen programazioa	8		
Hobekuntza teknikoak	3		
Segurtasuna eta Osasuna	4		
Fidagarritasuna	4		
Eskaintza-egilearen gaitasun teknikoa	-		25
Eskura dauden baliabideak eta kalitatearen kudeaketa	10		-
Makinak	5		-
Azpi-kontratatistak.....	5		
Dokumentazioa entregatzeko plangintza eta ikastaroak 5			
Proposamen ekonomikoa	-		18
Eskainitako epea	-		7
GUZTIRA	-		78

Ondorioz, ezin daiteke esan lizitatzailleek lorturiko puntuak justifikatu gabe daudenik.

- Hornidura ematea eta horren ordainketa, hornigaien diseinu eta fabrikaziora egokitu ziren, eta zuen konplexutasunaren ondorioz, ez zen behar bezala egokitu hasierako plangintzarekin.
- Esan beharra dago obraren exekuzio-epea 8 hilabetekoa izan zela, kontratuan jasotako 6 hilabeteen orde, eta lanen exekuzio-eritmoaren arabera, 5 ziurtagiri tramitatu ziren hilean.
- Adjudikazio-txostenean ez da behin ere eskaintza-egileen kaudimen teknikoa aipatzen. Bai aipatzen da, ordea, lizitatzailleek "gaitasun teknikoa"; eta semantikoki antzeko bada ere, irizpidearen edukia eta, halaber, balorazioa egiteko orduan kontuan hartu zena desberdina da. Hona hemen baloratutakoa:
 - Kontratuan definituriko lanentzako eskura dauden baliabideak eta Kalitate-kudeaketa.
 - Makinak.
 - Azpi-kontratatistak, honako kontratua exekutatzeko proposatu direnak.
 - Dokumentuak emateko plangintza eta ikastaroak.

Esan beharra dago BGP dela San Mames geltoki intermodaleko zona komunak kudeatzen dituen erakundea. Garbiketa-gastuak eta kudeaketa horretatik eratortzen diren gainerako gastuak, hala nola, mantentzea, argia eta abar, hainbanatuta egozten zaizkio atari hori erabiltzen duen operadore bakoitzari, hau da, Bilbobus, Renfe, Metro Bilbao Termibus, eta Euskotrani.



Aldiz, bezeroei arreta emateko bulegoa eremu komun horietatik kanpo dagoen bulego independentea da; bulego hori Bizkaiko Garraio Partzuergoak erabiltzen du eskusiboki eta, beraz, eremu biei dagozkien kontratuak modu independentean adjudikatzen dira.

Ondorioz, bi garbiketara-kontratu daude, eta horietako bakoitzaren xedeak independenteak dira. Eta bulego bien espazio fisikoak gertu egon arren, erabat desberdinak dira, titulartasunari eta erabilerari dagokionez. Ondorioz, guztiz justifikatuta dago bi kontratu egin izana, eta ez da horien kontratazio-printzipioa hautsi, inolaz ere.

Alegazioa: Zerbitzu horiei dagokienez, esan beharra dago, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bi une jakinetako kontratuak bateratu dituela, ezaugarri bereziak dituztenak:

Lehenengo unea 2007. urtearen azken aldeari dagokio, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Kontseilu Nagusiak Tarifak Koordinatzeko Esparru Akordioaren lehen garapen partziala onartu zuenekoari, hain zuzen; horren bidez, Gizatrans titulua sortu zen, eta Bilboko Udalak, Metro Bilbaok eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak sinatu zuten; txartel hori, beraz, Bilbobusen eta Metro Bilbaon erabili daiteke, baina ez Bizkaiko gainerako Operadore edo garraio-zerbitzuetan.

Horren ondorioz, erabiltzaileei telefono bidez arreta emateko sistema eta txartelak banatzeko mekanismo bat aktibatu dira, betiere, aipatu garraioek zerbitzua ematen duten jarduera-eremu geografikoan.

Hilabete batzuk beranduago, 2008ko apirilean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EuskoTrenen Tarifak Koordinatzeko Esparru Akordio hori partzialki garatzeko hitzarmena sinatzea erabaki zuten. Ondorioz, Gizatrans txartela Bizkaibusen ez ezik, Eusko Trenen linea guztietan ere erabili zitekeen. Horrek esan nahi zuen, erabiltzaileei arreta emateko eta txartelak saltzeko puntu berriak jarriko zirela abian. Hasieratik jakin izan balitz, beraz, beste modu batera antolatuko zen guztia, seguruenik.

Beste hau ere gehitu beharra dago: hasieran ezin zen jakin zein izango zen erakunde desberdinak partzuergoko tituluak erabiltzen hasteko une zehatza; izan ere, erakunde bakoitzak nolabaiteko subiranotasuna du gai horri dagokionez, eta ondoren sinatu diren akordioak izan dira, hain zuzen ere, zerbitzu-kontratu desberdinak gauzatzeko beharra sorrarazi dutenak.

Alegazioa: Lizitazioak prezio unitariotan egitea ez da derrigorrezkoa: kontratu bakoitzaren xedearen arabera izango da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.4 LANGILEAK

Alegazioa: Aurrekontu-txantiloian BGPko langileek jasotzen dituzten ordainsariak jasotzen dira, oinarrizko ordainsariak izan ezik, horiek, urtez urte ezartzen baitira Estatuko aurrekontu orokorretan. Lanpostu-mailako osagarria, bestalde, urtero zehazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan. Zenbateko horiek dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen dira eta BGPn ordaintzen diren ordainsarietan aplikatzen dira.

Horrez gain, 2008ko aurrekontu orokorrekin batera, oinarrizko ordainsari guztien eta BGPko funtzionario guztien osagarrien zerrenda ageri da.

Zerrenda horren kopia erantsi da: “2008ko ordainsari gordinen aurrekontua” (2008ko aurrekontu-liburuxkako 122. or.).

Alegazioa: Bitarteko funtzionario honen izendapena, lan-poltsan bigarren postuan zegoenarena, lehenengo tokian zegoenak uko egin izanaren ondorioz gertatu zen. Dokumentuan jasota ez egotearen arrazoa da ukoa telefono bidez egin zela. Hautagaiaren prestasun ezaren froga gisa, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako txostena erantsi da; bertan, aipatu erakundeak egindako lan-eskaintzen aurrean behin eta berriz jasotako ukoak jaso dira.

II.5 BESTE AKATS BATZUK

Alegazioa: Urteroko aurrekontuaren onarpena dela-eta, konpromiso-kredituei buruzko eranskin bat egin da, etorkizuneko ekitaldietarako planifikatu diren Inbertsio Planen zenbatekoak jasotzen dituen. Gainera, kontabilitateko aplikaziotik etorkizuneko ekitaldietako eragiketen zerrenda atera da; zerrenda hori mota horretako eragiketak sortu ahala eguneratzen da (gastuen onarpena, konpromisoak, SPKLren 2. Azken Xedapena, etab.). Zerrenda horretako datuak kontabilitate-ezarpenei dagozkie; apunte horietan, fase bakoitzeko datuak jasotzen dira, gastu-mota edozein dela ere (korrontea edo kapitala). Finantza Plana onartzea dela-eta, erakunde honek etorkizunera begira izango duen urte batzuetako jokabidea ere zehaztuta dago.

2008ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetatik ateratako zerrenda gehitu da, BGPk buruturiko konpromiso-eragiketen ondoriozkoak (korrontek eta kapitalekoak). Bertan, Finantza Planaren zehaztapan bat ere gehitzen da, non BGPren gastu korronteen etorkizuneko jarduerak jasotzen diren.

Alegazioa: Jarduera horiek ez dira BGPk zuzenean egindako gastuak (ezin baitu hirugarren baten eremuan jardun), zenbait kalteri aurre egiteko beste sektore batzuei eman beharreko zenbatekoak baizik; hau da, BGPk ez ditu ez proposatzen, ez sustatzen; BGP ez da azterlanak nahiz aurretiazko lanak idatzi dituen; ez ditu lizitatu, ez kontratatu, ez zuzendu; ez ditu bere izenean ordainagiri eta/edo ziurtagiriak jaso; ez ditu jaso, ezta bere ondarean mantendu ere. BGPrentzat ez dira inbentarioan jasotzeko moduko aktiboak (kontratua egin duen administrazioaren jabetzakoak dira, berak sortzen baitu azpiegitura), eta ez dira BMTren zerbitzu nahiz jardueren funtzionamendurako beharrezkoak, ez eta BGPk prezioa jaisteko modukoak ere. Gure ustez, gastu horiek kontratua burutu duen erakundeko VI. kapitulari dagozkio zuzenean, eta hori da ondasun horien jabea.



Alegazioa: BMTren II. linea exekutatzeko hasi zenetik, BGPk Eusko Jaurlaritzari transferitzen dizkion ordainketak desjabetze-jarduerei eta aldi baterako okupazioei baino ez dagozkie (148 mila euro 2008ko ekitaldian). Interesen ordainketa Eusko Jaurlaritzaren Garraio, Herri Lan eta Garraio Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak kudeatzen du, eta horren idazkian adierazten denez, Finantza Zuzendaritzaren bidez tramitatu behar da. Zenbateko horiek transferitzen diren kontua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiaren izenean dago eta, beraz, erakunde honek ezin dio finantza erakundeari horri buruzko informaziorik eskatu. Gainera, gure ustez, Euskadiko Autonomia Erkidegoko kontrol ekonomiko eta kontabilitateari buruzko 14/1994 legearekin bat etorritik, administrazio horren kontu-hartzaileari dagokio Euskal Herriko Ogasunaren eskubideen osotasunari buruzko finantza legezkotasuna zaintzea eta kudeaketa egokia den ala ez egiaztatzea. Ondorioz, jarduera ekonomikotzat joko dira administrazio-egintza guztiak, baita Euskal Herriko Ogasunarentzat eskubideak eta betebeharrak sortu ditzaketen garrantzia ekonomikoko egitate nahiz eragiketarako ere, edota, fondo edo balioen mugimenduak (21. art.).

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren kontuko saldoa, 2009ko urtarrilaren 30ean, 33 milaka eurokoa zen. Eusko Jaurlaritzaren izeneko kontutik interes moduan urte horretan jasotakoa, guztira, 1.535,09 euro izan dira.

Alegazioa: 2007an BGPk 11.162.009,08 euroko zuzkidura hornitu zuen Metro Bilbao, S.A.-ren partaidetzako balio-galeragatik (Fondo propioen eta Metro Bilbaoren partaidetzaren arteko aldea) (Gastuen 698 kontua). 2008an Metro Bilbao, S.A.-ren kontabilitate balioa gehitu egin da; beraz, BGPk Metro Bilbao, S.A.-ren zorroan dituen partaidetzen balorazioa ez da beharrezkoa; ondorioz, 2007ko zuzkidura bihurtu egin da (diru-sarreraren 798 kontua). Beste alde batetik, Metro Bilbao, S.A.k 2008ko apirilaren 15ean egindako Batzar Nagusian galerak konpentsatzeko kapitala murriztea onartu zen. Zenbatekoa: Prima Jaulkitzeagatik Erreserba 5.600.000,00 eurotan eta kapital sozialaren murrizketa 5.561.000,00 eurotan. Guztira 11.161.000,00 euro dira, eta gastuen 672 kontuan islatzen dira. Metro Bilbao, S.A.-ren Administrazio Kontseiluaren ziurtagiria erantsi da. Adierazitako kontuen laburpenak erantsi dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN ERANSKINAK

A.3 LANGILEAK

Alegazioa: Langileen gastuaren igoera lortzeko kontuan harturiko zenbatekoa, urteko gastuen aurrekontuko I. kapituluaren gehikuntzatik atera da. Esan beharra dago kalkulu horretan sartzen direla partida guztiak, eta nominez gain beste kontzeptu batzuk ere badaudela; esaterako, mediku eta farmazia laguntza (%8,96 gehitu dena) edota prestakuntza (%92,67 gehitu dena).

Alegazioa: BGPko langileen aurtengo soldatak aztertu ostean, eta antzinasunak, hirurteko berriak eta ordainsari espezifiko linealari dagokion zatia kenduta, urte horretan aparteko ordainsariak ordainsari arruntekin parekatzeko prozesuaren baitan gauzatu zena (2008ko urteko osagarri espezifikoei gehitu beharrekoa, Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasotako taularen arabera), 2008ko ordainsarien gehikuntza %4koa izan da. 2007ko abenduko KPI %4,2 izan zen, eta 2008ko urtarrilekoa, berriz, %4,3koa. Jarduera horiek Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren irizpideen arabera onartu ziren. Taula bat erantsi da, egindako kalkuluekin.

A.5 INBERTSIO ERREALAK ETA IBILGETUA

Puntu honetan, II.2 atalean (BILBOKO METROPOLI TRENBIDEARI LOTUTAKO AZPIEGITUREN TITULARTASUNA) egindako alegazioa jaso behar da.

A.13 KONTRATAZIOA

Puntu honetan, I.1.1 atalean (KONTRATAZIOKO LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA) eta II.3 atalean (KONTRATAZIOA) egindako alegazioa jaso behar da.



METRO BILBAO, S.A.

1.2.1. EPIGRAFEA

Aurre gogoetak:

1. Ikuskaritza-aldiko indarreko araudiari dagokionez

Honako alegazioak egiteko oinarri hartu dugun txostenak 2008. ekitaldian kontratazio-prozedura publikoaren alorren BGPk eta Metro Bilbao, S.A.-k burututako lege-preskripzioen betepena aztertzen ditu. Beraz, Metro Bilbao S.A.k legezko baldintza horiek betetzen dituen ala ez egiaztatzeko, indarreko araudia hartu behar da oinarri gisa. Kasuan-kasuan aplikatu beharreko legeria egokia zehazteko, gutxienez bi funtsezkoa aldagai hartu behar dira kontuan; alde batetik, adjudikatu beharreko kontratuaren zenbatekoa eta, bestetik, kontrataziorako lehiaketa edota prozedura ospatu zeneko une zehatza. Hori horrela, honako arauak aplikatuko dira:

- 2008ko apirilaren 30a aurreko kontratazio-prozedurak: abenduaren 30eko 48/1998 Legea aplikatuko da, hau da, ur, energia, garraio eta telekomunikazioen sektoreko kontratazio-prozedurak arautzen dituena; horren bidez gehitu zaizkio Espainiako ordenamendu juridikoari 93/38/CEE, eta 92/13/CEE Zuzentarauak, 400.000 eurotik gorako zerbitzu-kontratuak xedatzen dituztenak.
- 2008ko apirilaren 30a osteko kontratazio-prozedurak: urriaren 30eko 30/2007 Legea edota urriaren 30eko 31/2007 Legea aplikatuko dira, hau da, ur, energia, garraio eta posta zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurak arautzen dituena; betiere, adjudikatu beharreko zerbitzu-kontratuen zenbatekoa 387.000 eurotik gorakoa denean.



Bereizketa hori erabat garrantzitsua da; izan ere, 2008ko apirilaren 30a aurretik burututako 400.000 eurotik gorako zerbitzu-kontratuetan ez da aplikatuko ez 48/1998 Legea, zenbatekoa oinarri hartzen duena, ez eta 30/2007 Legea ere, hau da, kontratazio-prozeduraren hasierako unea oinarri hartzen duena. Ondorioz, ez legoke kontratazio-prozedura jakin bat sustatzen duen araurik; izan ere, 1998ko apirilaren 30a aurreko indarreko araudiak, hau da, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, administrazio publikoetara eta horien mendeko zuzenbide publikoko erakundeetara mugatzen zuen haren aplikazio-eremua edota, hala badagokio, industria nahiz merkataritza jarduerarik gauzatzen ez duten zuzenbide pribatuko erakundeetara. Horretarako, Metro Bilbao, S.A. merkataritzako sozietatea denez, eta jarraian adieraziko den moduan zuzenbide pribatuko erakundea izan eta merkataritzako jarduera gauzatzen duen heinean, aipatu 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako kontratazio-prozeduretatik kanpo geratuko litzateke eta, halaber, kontratazio publikoaren printzipio orokorrak baino ez litzuke kontuan hartu beharko, kapital publikoko merkataritzako sozietatea delako (2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren Seigarren xedapen Gehigarria). Horregatik, 400.000 eurotik beherako zerbitzu-kontratuei buruzko 2008ko apirilaren 30a aurreko kontratazio-prozeduretan, berdintasun, publizitate, konkurrentzia eta antzeko printzipioak bezalakoen betekizuna programatikoa baino ez da; hau da, ez da daude Auzitegiko txostenak aplikatu nahi dituen arau nahiz zenbateko horren zorrotzen mende.

2. Metro Bilbao, S.A.ren adjudikatzeko gaitasunari dagokionez.

Honako alegazioak egiteko oinarri hartu dugun txostenean, zenbait kasutan aipatzen da, “publizitaterik gabeko prozedura negoziatua behar bezala justifikatu gabe” erabili dela (4 eta 7. puntuak); prozedura, izan ere, prozedura ireki bidez egin beharko lirateke (6, 9, 10 eta 11. puntuak).

Aurretik ondorioztatu daitekeenez, beraz, Metro Bilbao, S.A.-k kontrataziorako zenbait baldintza eta prozedura errespetatu behar ditu (), administrazio publikoek edota botere adjudikazio-emaileek soilik predikatu ditzaketen baldintza eta prozedurak, hain zuzen ere. Horri dagokionez, gogoratu beharra dago, Metro Bilbao, S.A. ez dela inondik inora Administrazio Publikoa, ez eta botere adjudikazio-emailea ere. Merkataritzako sozietate izaerak automatikoki salbuesten du Metro Bilbao, S.A. Administrazio Publikoa izatetik.

Botere adjudikazio-emailea izateari dagokionez, esan beharra dago, 30/2007 Legearen 3. artikulua xedatutakoaren arabera botere adjudikazio-emaileak direla: “berariaz industria-edo merkataritza-izaerarik ez duten interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak direnean eta, betiere, 3. paragrafoan ezarritako jarraibideen arabera botere esleitzaila den subjektu batek edo zenbaitek jardun hori gehiengoz finantzatzen badu, kudeaketa kontrolatzen badu edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintza-organoko kideen erdiak baino gehiago izendatzen baditu”



Hori horrela, Metro Bilbao S.A. sozietarioki botere adjudikazio-emaile baten kontrolpean badago ere (Bizkaiko Garraio Partzuergoa), bere jarduera, hau da, trenbide-linearen ustiapena, bere izaera merkataritzakoa da batik bat; zentzu horretan, jarduera hori irabazi asmoa duten erakunde pribatuek egikaritu dezakete, eta hala gertatzen da, hain zuzen ere, beste udalerrri batzuetan. Ondorioz, Metro Bilbao S.A.-k gauzatzen duen jarduera bestelako operadore pribatuek gauzatzeko modukoa denez (Metro Bilbao, S.A.ren termino eta baldintza berberetan), bere xede sozialaren merkataritzako izaerak botere adjudikazio-emaile gisa ulertzea eragozten du.

Laburbilduz, Metro Bilbao, S.A. sektore publikoko sozietatea da, zalantzarik gabe; hala ere, ezin daiteke botere adjudikazio-emaile gisa ulertu. Ondorioztatzen denez, kontratuak adjudikatzeari dagokionez, 30/2007 Legearen 176. artikulua baino ezin daiteke aplikatu, eta ez 175. artikulua, aurkaraturiko txostenean hala jaso arren. Aipatu 176. artikulua horrek sektore publikoko erakundeak baino ez ditu lotzen publizitate, konkurrentzia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioak betetzera. Artikulu horrek ez du ezartzen zeintzuk diren prozedura irekira jotzeko beharko lirartekeen zenbateko eta baldintzak, edota prozedura negoziatu nahiz publizitaterik gabeko prozedura negoziatua saihesteko eskatzen diren zenbateko eta baldintzak ere.

Ondorioz, botere adjudikazio-emailek gabeko sektore publikoko sozietatea izateak, zenbait prozeduretan Administrazio publikoek edota botere adjudikazio-emaileek baino modu malguagoan parte hartzeko gaitasuna ematen dio Metro Bilbao S.A.-ri, hala nola, prozedura murriztua, negoziatua eta publizitaterik gabeko negoziatua; era berean, zuzeneko adjudikazio bidezko zenbait kontratu ere gauzatu ditzake, aipatu erakundeentzat ezarritako zenbatekoak baino handiagoetan.

Gogoeta partikularrak:

1. iritziaren aurrean

